

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onestea dirulaguntzen oinarri arauak

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu 2020ko aurrekontu orokorrari behin-behineko onestea emateko 2020ko apirilaren 3an Udalbatzak hartu zuen erabakiaren aurka; ondorioz, behin betiko onetsizat ematen da, otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuena) 15.1 artikuluan ezartzen duenari jarraituz.

Amurrioko Udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauren VII. kapituluaren zeuden jasota. Hona edukia, hitzez hitz:

DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

29. OINARRIA. AMURRIOKO UDALERRIAN BEHAR EGOERETAN DAUDENENTZAKO DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO ETA EBAZTEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Amurrioko Udalak 2003tik badu erregelamendu bat Larrialdi Egoeretakoa Laguntzen Udal Programaren barruan dirulaguntzak kudeatzeko. Erregelamendu hori Toki Gobernu Batzarraren erabaki bidez indargabetu zen 2012ko martxoaren 8an, hura egungo gizartearen egoerara egokitu behar zelako, udal laguntza horiek babestu beharreko egoerengatik ez ezik, haiez gozatzeko bete beharreko baldintzengatik ere. Horretarako guztirako, kontuan izan behar ziren autonomia erkidegoan ziren laguntzak, zeren eta udalaren konturako laguntzak haien subsidiarioak izango baitira.

Kontuan izanik Amurrioko Udalak emandako garrantzia premia egoeretan daudenentzako udal laguntzen sistema bat, indarrean dagoen legerian aurreikusitako beste era bateko baliabide ekonomikoen subsidiarioa eta osagarria, ezartzeari, 2020an 58.000 euro bideratu dira behar egoeretan daudenentzako udal dirulaguntzak ematera.

Dirulaguntza hauek emateko, deialdi hau onartzen da eta gauzatzea ondoko oinarrien bitartez arautuko da.

GAUZATZEKO OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea honako hau da: Amurrioko udalerrian behar egoeretan dauden pertsonen dirulaguntzak emateko den aurrekontu partidaren gauzatzea arautzea. Hauek indarrean dagoen legerian aurreikusitako beste era bateko baliabide ekonomikoen laguntza subsidiarioak eta osagarriak izango dira, eta hauen helburua da gure ingurunean dauden eta eska daitezkeen laguntzak osatzea eta, zenbait kasutan, haien estaldura handitzea, baita babes hori zuzentzen zaion pertsona multzoa neurri batean handitzea ere.

2. Pertsona onuradunak

Laguntza mota desberdinak eskuratu ahal izango dituzte, ordenantza honen barruan jasotzen diren kasu espezifikoetan, baldintza hauek betetzen dituzten pertsonen:

a) Amurrioko udalerrian erroldaturik egotea eta benetan egoiliarak izatea, laguntzaren eskaera data baino 18 hilabete lehenagotik gutxienez.

b) 18 urte baino gehiago izatea.

c) Bai eskatzaileak, eta bai bere elkarbizitza unitateko gainerako pertsonak ere, frogatu behar dute beraren ongizatera zuzendutako gizarteratze ibilbide bat egin izana. Ibilbide horren osagaitzat hartuko dira egonkortasun pertsonala eta elkarbizitza unitatearena, gizarteratzea eta gizarte partaidetza (eta era berezian elkarbizitzako ohiko ingurunean) bultzatzeko beharrezko trebetasunak eta gaitasunak garatzeko helburua duten ekintza guztiak.

d) Nahiko baliabiderik ez izatea. Horrelakorik ez dagoela iritziko da ondoko baldintza hauek betetzen direnean:

- Oinarri hauetan eta beren I. eranskinean jasotzen denaren arabera ezarritako baremoa gaintzen duen diru sarrerarik ez izatea azken urtean, edo hasitako urtean, edo laguntza eskaeraren helburu diren gastuak lotzen diren edo lotu behar diren denboraldian (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak berak erabakiko du adierazitako irizpide horietako zein hartuko den kontuan).

- Egoera aztertu egingo da elkarbizitza unitate independenteen kasuan, baldin eta, lanean altan egonik eta beren soldatak kobratzeko eskubidea sortu arren, kobratzeko arazoekin badabilta: etengabeko ez ordaintzeak edo atzerapenak, egoera horiek familia unitatea egoera oso ahulean uzten baitute luzatuz gero, eta konpondu ezineko ondorioak ekar baititzakete. Eskatzaileak behar bezala egiaztatu beharko du egoera hori.

- Emango diren laguntzen ehunekoak I. Eranskineko taulan (Aplikazio baremoa) ezarritakoak izango dira. Horretan sartuta dago aplikatu beharreko irizpide ekonomikoa, kontuan hartuta bai diru sarrerak eta bai diru ondarearen gehieneko muga, ezingo baitu gaintu 8.000 euroko zenbatekoa. Baremo hori egiteko, erreferentzia moduan kontuan izango da Eusko Jaurlaritzaren aurtengo gizarte larrialdietarako laguntzen programarako oro har aplikatu beharreko taula, beti horretara egokituta; hala ere, taula horretan aldaketa hauxe egingo da: diru sarreren tarte berria jarri, diru ondarearen muga lehenago adierazitakoa izanik.

- 2020ko aurrekontua gauzatzeko udal arauan sartuta dagoen ordenantza hau argitaratu ostean, eta betiere aurrez argitaratu baldin bada Eusko Jaurlaritzaren gizarte larrialdietarako laguntzak arautzen dituen araua, udalaren webgunean argitaratuko da eranskina, zehaztuko dituen aplikatzeko baremoa eta ordenantza honetan jasotzen diren laguntza mota desberdinetan ordainduko diren gehieneko kopuruak.

- Ohiko etxebizitzaz besteko ondasunak edukitzea edo eskura izatea, banaka balioetsiko du Amurrioko Udalaren oinarrizko gizarte zerbitzuak, eta balioespen horretan oinarrituko da egindako eskaera ebazteko proposamena.

e) Etxebizitza eskatzaile bezala izena emanda egotea Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren Etxebide zerbitzuan, baldin eta laguntzak alokairu gastuak ordaintzeko badira, salbu eta diru sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen araudian jasotako salbuespenezko egoeretan edo etxebizitza eskatzeko Etxebidek hasiera batean ezarritako baldintzak betetzen ez diren kasuetan.

f) Elkarbizitza unitate bat osatzea, laguntza eskaeraren data baino urtebete lehenagotik gutxienez. Arautegi honen ondorioetarako, elkarbizitza unitatetzat hartuko dira unean-unean indarrean dauden araudietan diru sarrerak bermatzeko errenta eta gizarte larrialdietarako laguntzak izapidetzeko zehazten diren pertsonak edo pertsona taldeak, odol nahiz ezkontza ahaidetasunez lotuta dauden pertsonen kasuan izan ezik, horiek guztiak elkarbizitza unitate ekonomiko independente bakar baten barrukotzat hartuko baitira.

g) Etxebizitza edo alojamendu berean elkarbizitza unitate bat baino gehiago izatekotan, gehienez ere bi elkarbizitza unitate ekonomiko independentek eskatu ahal izango dute laguntza.

h) Laguntza jasotzen den denbora guztian Amurrioko udalerrian etenik gabe bizi izatea eskatuko da, bertan egiaz egoitza izatea, erroldaren baldintzaz gainera. Betebehar hori elkarbizitza unitate ekonomiko independenteko kide guztiei eskatuko zaie. Horren inguruan gertatzen diren aldaketa guztien berri eman beharko zaio oinarrizko gizarte zerbitzuari, eta berak balioetsiko

ditu. Bertan bizi ez izatekotan, edo horrelako gorabeheren berri ez ematekotan, laguntzak eten eta/edo jasotako diru kopuruak itzultzeko eskatu ahal izango da. Arrazoi horiengatik laguntza etetekotan, berriro hasiko da ordenantza honetan laguntzak eskuratu ahal izateko eskatutako egonaldia, hau da, 18 hilabete.

i) Oinarrizko gizarte zerbitzuaren proposamen teknikoak. Horri buruz, zerbitzuko teknikarien artean adostasuna izan behar da eman beharreko ebazpen proposamenean, baldin eta kasuan diren inguruabar bereziengatik beharrezkoa bada oinarrietako betebeharren bat malgutzea.

3. Laguntzen motak eta ezaugarriak

3. A - Laguntzen ezaugarriak:

1. Ordenantza honetan jasotzen diren laguntzak helburu jakinetarako emango dira, eta be-raiek ematean ezarritako helbururako bakarrik erabili beharko dira.

2. Indarrean dagoen legerian aurreikusten diren eta pertsona onuradunari edo bere elkarbizitza unitateko kideetako edonori egokitu ahal zaizkion mota guztietako gizarte baliabide eta prestazio ekonomikoen subsidiarioak izango dira; horregatik, udal laguntza hauek subsidiario izan litezkeen eduki ekonomikoko gizarte baliabide eta prestazioen ezaugarriak (gizarte larrialdiko laguntzenak, besteak beste) aldatzen badira, horrek ekar dezake aldatzea oinarri hauean jasotako kontzeptu batzuen indarrean egotea.

3. Eskualdatu ezinekoak izango dira, eta ezin izango dira eginbeharren berme moduan eskaini, ez eta osorik edo zati batean laga, konpentsatu edo deskontatu (bidegabe jasotako laguntzak itzultzeko izan ezik), atxiki edo bahitu, aplikagarria den Estatuaren legeria orokorrean aurreikusitako kasuetan eta mugekin salbu.

4. Premiazko egoeretarako laguntzek dirulaguntza izaera izango dute. Haiek emateko, delako ekitaldirako aurrekontuan helburu horretarako esleitutako kreditua egon beharko da.

5. Ordenantza hau argitaratu ostean egindako eskaerek atzera eragina izan dezakete 2020ko urtarrila arte, baldin eta aurrez ez eskatzeko arrazoia izan bada laguntza hauek arautzen dituen ordenantza argitaratu eta indarrean sartu beharra, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak irizten badio premia hori bazegoela eskaera egin aurretik.

6. Laguntza hauek emateko prozedura zuzeneko emakida araubidean izapidetuko da, deialdi honek interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa duela egiaztatuta dagoela irizita, 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 22-2c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

7. Behar egoeretan daudenentzako dirulaguntzen zenbatekoa aldatu egingo da unitate ekonomiko independente bakoitzaren egoeraren arabera, baita eskatutako laguntza motaren arabera ere. Baremo ekonomikoa aplikatu eta gero ateratzen den zenbatekoa murriztu ahal izango du udalak, beharrezkoa baldin bada, aurrekontuko baliabide erabilgarrien arabera, behar egoeretan dauden elkarbizitza unitate gehiagori programan sartzeko aukera emateko, betiere oinarrizko gizarte zerbitzuak proposamen txostena eman eta gero.

8. Behar egoeretan daudenentzako dirulaguntzak eta kontzeptu berberetarako izaten diren gizarte larrialdietarako laguntzak bateraezinak izango dira; dena den, udalaren partidaren konturako laguntzak gizarte larrialdietarako laguntzen programaren subsidiarioak dira beti.

9. Urtean zehar eta udal laguntzaren eskaera egin aurretik, gizarte larrialdietarako laguntzen programaren onuradun izan diren elkarbizitza unitate ekonomiko independenteek oinarri haue-tan araututako behar egoeretan daudenentzako dirulaguntzen programari helduta dirulaguntza eskatzen badute, lehenik eta behin, gizarte larrialdietarako laguntzen programan jaso dituzten zenbatekoak zenbatuko dira, kontzeptuetan udal programarako ezarritako mugak ez daitezzen gainditu, ezta elkarbizitza unitate ekonomiko independente bakoitzak eska ditzakeen gehieneko laguntzak ez gainditzeko ere.

10. Era berean, behar egoeretan daudenentzat eman beharreko laguntzak kalkulatzeko, enplegurako pizgarriak aplikatuko dira, Eusko Jaurlaritzak gizarte larrialdiko laguntzetarako ezarritako baldintzetan.

11. Kontuan izanik udal laguntza hauek subsidiarioak direla indarrean dagoen legerian aurreikusitako gainerako dirulaguntzekiko, nagusiki gizarte larrialdietarako laguntzekiko eta diru sarrerak bermatzeko errentarekiko, oinarri hauek indarrean jarraitzeko baldintza izango da araudi horietan funtsezko aldakuntzarik ez izatea. Gizarte larrialdietarako laguntzen eta diru sarrerak bermatzeko errentaren araudietan urtero egiten diren aldaketek ekarriko dute oinarri hauek haietara era automatikoa egokitzea, betiere aintzat hartuta aipatutako subsidiarioritasun irizpidea.

12. Urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Amurrioko Udalaren oinarrizko gizarte zerbitzuak balioespina egingo du programaren martxari buruz eta laguntza mota desberdinetan bere gain hartutako gastuari buruz.

13. Era berean, urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, betiere aurrekontu esleipenik eta Oinarriko Gizarte Zerbitzuaren aldeko txostenik badago, kontzeptu eta/edo elkarbizitza unitate ekonomikoko pertsona bakoitzeko dirulaguntza bat baino gehiago ematea balioetsiko da, eskaerak jaso badira eta kontzeptu eta/edo pertsona bakoitzeko ezarritako laguntza kopurua gainditzen dutelako ebatzi gabe badaude.

3. B – Laguntzen motak: bi multzo handi ezartzen dira:

1. Gizarte larrialdietarako laguntzen araudian normalean jasota dauden gastuetarako laguntzak.

Oro har, eta kasu bakoitzean ematekoa den laguntzaren ehunekoa gorabehera, gehieneko hauek ezartzen dira kontzeptu bakoitzerako:

a) Alokairu gastuak (hilean 250 euro, gehienez).

b) Kredituen interes eta amortizazio gastuak (hilean 250 euro, gehienez).

c) Etxebizitza mantentzeko gastuak (urtean 900 euro, gehienez).

d) Energia gastuak eta beste hornigai batzuk (urtean 900 euro, gehienez).

e) Altzarien eta "linea zuriko" etxetresna elektrikoaren gastuak (urtean 925 euro, gehienez). Bi familia unitate egonez gero, gehieneko muga hau izango da: erdia bakoitzarentzat.

f) Etxebizitzan egokitzeko eta konponketa edo oinarrizko instalazioak egiteko gastuak (urtean 925 euro, gehienez). Bi familia unitate egonez gero, gehieneko muga hau izango da: erdia bakoitzarentzat.

g) Oinarrizko beharretarako gastuak (urtean 1.850 euro, gehienez).

h) Aurretiazko zorpetze gastuak (urtean 1.500 euro, gehienez), betiere errespetatuz kontzeptu bakoitzerako gehieneko zenbatekoak.

– Alokairurako eta kredituen interesak eta amortizazioa ordaintzeko laguntzetan, emakida, hasiera batean, sei hilabeterako izango da, eta ofizioski luzatu ahal izango da, baldin eta nahitaezko betekizunak betetzen jarraitzen bada, aurrekontu esleipena badago eta oinarrizko gizarte zerbitzuak aldeko txostena egiten badu. Alokairuko laguntzetan, eman daitekeen gehieneko zenbatekoa ez da inoiz ere etxebizitzaren alokairuaren ehuneko 70 baino gehiago izango, eta kredituaren interesetarako eta amortizaziorako laguntzetan, ezin izango da kredituaren hileko interesen eta hileko amortizazioaren zenbatekoaren ehuneko 70 baino gehiago izan.

– Kredituen interesak eta amortizazioa ordaintzeko laguntzak eskatu ahal izango dira, nahiz eta eskatzaileak kontzeptu berberetatik urtebetez gizarte larrialdietarako laguntzak jasotakoak izan.

– Etxebizitzaren alokairua partekatuta badago edo hartan azpierrentamendurik badago, ez da onartuko bi eskaera baino gehiago, eta laguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da hilean 125 eurotik gorakoa izango; biak batuta, ezin izango dute etxebizitzaren alokairuaren ehuneko 80 gainditu.

– Gainerako alokairuetarako (ostatu edo apopilo kontratuak, ostaturik egotea) laguntzen muga, baita eman daitezkeen gehieneko zenbatekoa ere, hasitako urteko gizarte larrialdietarako laguntzen programa arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren Aginduan finkatutako irizpideak kontuan hartuta ezarriko dira.

– Babes publikoko etxebizitza motaren baten barruan dagoen etxebizitza bat jabetzan edo alokatuta daukatenean, eskaera egiten den garaian indarrean dagoen legeriak xedatutakoaren arabera, ezin izango dute alokairua edo kredituen interesak edo amortizazioa ordaintzeko edo kontzeptu horiek sortutako zorpetzerako laguntzarik jaso.

– Etxebizitza mantentzeko, energia gastuetarako eta alde zuzeneko zorpetzerako laguntzetarako, hasierako emakida aldia sei hilabetekoa izango da, luzatu egin ahal izango dena, gehienez ere, hamabi bete arte, baldin eta hasierako beharrezkin jarraitzen bada, aurrekontu esleipenari buruzko txostenik badago eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen aldeko txostena bada.

– Ez da etxebizitzaren alokairurako laguntzarik emango Etxebidieren etxebizitza bat alokairuan eduki eta hori erabiltzeko eskubidea galdu bada, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin finkatutako betebeharrak edo baldintzak bete ez izanagatik. Era berean, Etxebidieren etxebizitza bati uko egitea alokairua ordaintzeko laguntza ukatzeko edo eteteko arrazoia izan liteke. Aurriko bi egoeretako zernahitan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak balorazio bat egingo du premia zehazteko.

– Aurrietarako zorpetzerako ezin izango da laguntza bat baino gehiago eskatu urte berean eta kontzeptu bererako, oinarrizko beharren kasuan izan ezik, ez eta lehenengo eskaera egin zenetik hiru urte igaro baino lehen ere.

Zorpetzerako laguntzak kobratzea e), f) eta g) kontzeptuetan ez da bateragarria izango urte berean eta kontzeptu bereko gastuak ordaintzeko jaso daitezkeen laguntzekin; horrela, laguntzak bateraezinak direnean, oinarrizko gizarte zerbitzuak egokien irizten dion ebazpen proposamena egingo du, kontuan hartuta, batetik, gizarte eta familia egoera eta, bestetik, erabilgarri dagoen aurrekontu kreditua.

– Gehienez ere dirulaguntza bakar bat eskatu ahal izango da urtean kontzeptu bakoitzeko, oinarrizko beharretarako dirulaguntzen kasuan izan ezik.

– Amurrioko Udalak onartutako gizarte larrialdi laguntzak emateko oinarrizko irizpideak aplikatuz, programa horretatik, bere osotasunean edo dirulaguntza eskatzeko kontzepturen batetik, at gelditzen diren pertsonak behar egoeretarako udal laguntza programa honetatik ere kanpo geldituko dira.

– Era berean, programa honetan ez jasotakoetan, kontuan hartuko dira Amurrioko Udalak gizarte larrialdiko laguntzetarako erabakitako irizpideak.

2. Gizarte larrialdietarako laguntzen araudian normalean jasota ez dauden bestelako gastuetarako laguntzak.

a) Familia mantentzeko laguntzak:

Familia mantentzeko dirulaguntza aldi behingoa edo unean unekoa da, eta eguneroko oinarrizko premiei aurre egiteko diru sarrera nahikorik ez duten pertsonentzat. Inguruabar askotan irits liteke familia unitate bat egoera horretara; oinarrizko gizarte zerbitzuak balioetsiko du egoerak berehala esku hartzea eskatzen duen, eragindako pertsonen osotasuna arriskuan badago.

Kasu hauek lagundu ahal izango dira familia mantentzeko laguntzen bidez:

1. Pertsonak edo elkarbizitza unitate independenteak, baldin eta, bete arren baldintza ekonomikoak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko, ezin badute hori jaso beste baldintza batzuk betetzen ez dituztelako: 3 urte lehenagotik gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta daudela egiaztatzea, edo Gizarte Segurantzari 5 urtez gutxienez kotizatu izana egiaztatzea, edo unean-unean balioets litezkeen beste batzuk.

2. Pertsonak eta elkarbizitza unitate independenteek, baldin eta, lanean altan egonik eta beren soldatak kobratzeko eskubidea sortu arren, soldata kobratzeko arazoekin badabilta: etengabeko ez ordaintzeak edo atzerapenak, egoera horiek familia unitatea egoera oso ahulean uzten baitute luzatuz gero, eta konpondu ezinako ondorioak ekar baititzakete. Eskatzaileak behar bezala egiaztatu beharko du egoera hori.

3. Aparteko izaeraz eta behin bakarrik, oinarrizko gizarte zerbitzuak azter lezake laguntza hau ematea mugako egoera bat dela irizten badiu, egoera aurreikusi ezina bada eta udalaren gizarte zerbitzuen berehalako esku hartzea eskatzen badu; horrelakoetan, balioets daiteke oinarri hauetako baldintza orokorrak malgutu beharra.

4. Aparteko izaeraz eta behin bakarrik, familia mantentzeko laguntzak jaso ahal izango dituzte familiak, baldin eta beren ardurapean adingabeak edo mendekotasunen bat duten pertsonak badituzte eta bertan bizitzen eta erroldatuta 18 hilabetetik behera badaramate, betiere Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak irizten badiu babesgabetasun egoera larri bat dagoela, familiako helduek edo zaintzaileek ezin dituztelako ase adingabeen edo mendekotasunen bat duten pertsonen gutxienerako eta oinarrizko elikadura, higiene eta jantzi beharrak.

Familia mantentzeko laguntzen gehieneko zenbatekoak honako hauek izango dira:

- Kide bateko elkarbizitza unitate ekonomiko independentea denean: dena delako ekitaldian indarrean dagoen diru sarrerak bermatzeko errentaren ehuneko 50.

- Kide biko elkarbizitza unitate ekonomiko independentea denean: dena delako ekitaldian indarrean dagoen diru sarrerak bermatzeko errentaren ehuneko 50.

- Hiru kideko edo gehiagoko elkarbizitza unitate ekonomiko independentea denean: dena delako ekitaldian indarrean dagoen diru sarrerak bermatzeko errentaren ehuneko 50.

- Bizikidetzaren independente unitate ekonomikoa, adingabeak edo mendekotasuna duten pertsonak badaude: Indarreko diru-sarrerak bermatzeko errentaren ehuneko 75, bizikidetzaren unitatearen kide kopuruaren arabera.

- Diru sarrerak delako urterako diru sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa baino txikiagoak diren kasuetan, mantentze laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurreko irizpideak izango dira erreferentzia.

Familia mantentzeko laguntzak emateko gehieneko aldiak hauek izango dira:

a) Hiru hilez behingoak: oro har, hiru hilean behin emango da laguntza, horretarako eskatutako baldintzak betetzen jarraituz gero.

b) Bi hilbetean behin: beren ardurapean adingabeak edo mendekotasunen bat duten pertsonak dituzten familiei bi hilabetetik behin emango zaie laguntza, horretarako eskatutako baldintzak betetzen jarraituz gero.

Laguntza hauek ofizioz luza daitezke, baldin eta aurrekontu esleipena badago, hasierako emakida ekarri zuten inguruabarrak mantentzen badira eta oinarrizko gizarte zerbitzuak haren aldeko proposamen teknikoa egiten badu.

Kasu batean zein bestean, kontuan hartu beharreko gehieneko epealdia diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko baldintzak bete artekoa izango da.

Diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea galduz gero, ez du ezinbestean sorraraziko familia mantentzeko laguntza jasotzeko eskubidea, baldin eta galtze horren arrazoiak onuradunari egotzi ahal bazaizkio (esate baterako, interesdunaren edo elkarbizitzako unitateko edozein kideren zabarkeriaren ondorioz baldintzak betetzeari uztean, edo oinarrizko gizarte zerbitzuak berak balioets dezakeen beste edozein egoeratan).

Hiru hilez behingo laguntzei dagokienean, hiruhileko naturalak hartuko dira kontuan diru-laguntza hauek emateko; beraz, hiruhilekoaren lehenengo eta bigarren hiletan egin beharko da laguntza eskaera, hiruhileko horretan kobratu ahal izateko. Laguntza eskaera hiruhileko baten azken hilean aurkeztuz gero, hurrengo hiruhilekoan emango litzateke dirulaguntza, hala balegokio.

Bi hilabeterik behin ematen diren laguntzak direla eta, bihileko naturalak izango dira kontuan, ordaintzeko eskubidea aribideko bihilekoan sortuko da, baldin eta laguntza eskaera bihileko horren lehen hilean egin bada. Laguntza eskaera bihilekoaren bigarren hilean aurkeztuz gero, hurrengo bihilekoan emango da dirulaguntza, hala badagokio.

Familia mantentzeko dirulaguntza eta diru sarrerak bermatzeko errenta ez dira bateragarriak. Halaber, behar egoeretan daudenentzako dirulaguntzei dagokienean, etxebizitzaren alokairu gastuak ordaintzeko laguntzak ez dira bateragarriak etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriarekin. Diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko baldintzak betetzeari utziz gero, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria (diru sarrerak bermatzeko errentari lotutakoa) jasotzeko eskubidea galdu ahal izango litzateke, baldin eta baldintzak betetzeari uztearen arrazoiak onuradunari egotzi ahal bazaizkie; horrek ez du ezinbestean eskubiderik sorraraziko behar egoeretan daudenek alokairu gastuetarako laguntzak jaso ditzaten.

Familia mantentzeko dirulaguntzak bateragarriak izan daitezke behar egoeretan daudenek ordenantza honetan jasotako gainerako kontzeptuetarako jaso ditzaketan dirulaguntzekin, bertan jasotako kasuetan izan ezik.

b) Ostatu eta mantenu gastuetarako dirulaguntzak, genero indarkeria egoeretan:

Ostatu eta mantenu gastuak, Amurrioko udalerriko edo inguruko ostalaritza zerbitzuetan eginak, programa honen kontura ordaindu ahal izango dira, oinarrizko gizarte zerbitzuak egoki irizten badio emakumea arriskuan dagoelako. Laguntza hori emakumearen ardurapean dauden eta elkarbizitza unitatearen zati diren adingabeei eta helduei ere eskaini ahal zaie.

Aldez aurretik, emakumearen beraren baliabideak eta haren hurbileko sare sozialak eskaintzen dituen aukerak aztertuko dira, ez da nahitaezkoa izango salatuta izatea emakumea arrisku egoeran jarri duten gertakariak. Laguntza honen helburua izango da egitateen ondoko lehenengo egunetan emakumeak eta haren ardurapean dauden adingabeek edo haren menpe eta elkarbizitza unitateko kide izanik harekin dauden pertsonen hurbileko gizarte ingurunean jarraitzea ahalbidetzea, ahal den neurrian eguneroko dinamikari eusteko asmoz (adingabeen kasuan, eskolara joaten jarrai daitezen), eta horri esker ingurunean bertan bestelako aukerak bilatzeko asmoz, edo, hori posible ez balitz, beharrezko gestioak egiteko, probintziaren barruan halako egoerarako prestaturik dauden bizitoki baliabideetan sar daitezen.

c) Bizitoki eta mantenu gastuetarako dirulaguntzak, behar larriko egoeretan:

Ostatu eta mantenu gastuak, Amurrioko udalerriko edo inguruko ostalaritza zerbitzuetan eginak, programa honen kontura ordaindu ahal izango dira, oinarrizko gizarte zerbitzuak irizten badio muturreko egoera bat dela, egoera aurreikusi ezina bada eta udalaren gizarte zerbitzuen berehalako esku hartzea eskatzen badu.

Ostalaritza zerbitzuetako ostatu eta mantenu gastuak gehienez ere hamar egunez lagundu ahal izango dira. Hala ere, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak balioets dezake epe hori luzatzeko beharra, baina gehienez ere bost egunez.

Multzo honetako b) idatz zatian (genero indarkeria) eta c) idatz zatian (behar larria) jasotzen diren egoeretan, dirulaguntza hauek jasotzeko baldintza orokorrak betetzea malgu hartuko da, oinarri hauen bigarren idatz zatian ezarritako moduan, bai eta erantsitako diru baremoaren aplikazioa ere; malgu hartuko da, orobat, gainerako kasuetan behar diren agiriak aurkeztea, lehenetsuna emanik berehala esku hartzeari.

Kasu batean zein bestean, udalak zuzenean ordainduko dizkie laguntza hauek ostaturia eta mantenua eman duten ostalaritza zerbitzuei, apopiloaren izenean egindako faktura aurkeztu eta gero.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak kasuz kasu balioetsiko du familia mantentzeko dirulaguntza presaz izapidetu beharra dagoen, kontuan hartuta oinarri hauetan dirulaguntza horietarako ezartzen diren zenbatekoak.

d) Mendekotasunak gainditzeko tratamenduen kasuan, joan-etorrietarako dirulaguntzak, baita komunitate terapeutiko batean sartzek eragindako gastu pertsonalak ordaintzekoak ere.

Laguntza hauen helburua da drogamendekotasunak gainditzeko tratamendu medikoa edo terapeutikoa jasotzen duten pertsonen diruz laguntzea, aldi-aldi tratamendu zentroetara joan behar dutelako eta osasun sare publikoak ez dituelako gastu horiek estaltzen.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak familiaren egoera orokorra ezagutu beharko duen arren, interesdunaren beraren egoera balioetsiko du honelako laguntzetarako.

Nahitaezkoa izango da tratamendu zentroaren txostena aurkeztea alde aurretik, zeinetan azaldu behar duen interesdunak onera egin duela mendekotasunak gainditzeko bidean eta zentrori zein egunetan joan den.

Laguntza hauen bidez interesdunaren joan-etorrietako gastuak ordainduko dira, eta horretarako aintzat hartuko da tratamendu zentroak dauden tokietara garraio publikoaz joateak duen kostua, interesdunak zeinahi garraibide erabilita ere.

Era berean, komunitate terapeutiko batean sartzek eragindako gastu pertsonalak estaltzeko ere balio dute dirulaguntza hauek; kasu horretan, hilean 80 euro emango dira, gehienez ere.

Interesdunak berak tratamendua bertan behera utziz gero, dirulaguntza eten egingo da edo ukatu egingo zaio.

Horrelako kasuetan, kontuan izanik azken xedea dela mendekotasuna gainditzeko prozesua sustatzea, funtsezko faktore den aldetik interesduna gizarteratzeko, laguntzaren eskatzaileari soilik lotutako baremo orokorra aplikatuko da (oinarri hauei erantsita doa), eta malgu hartuko da, orobat, gainerako kasuetan behar diren agiriak aurkeztea. Ezinbestekoa izango da tratamendu zentroen agiriak aurkeztea.

e) Gizarteratzeari begira egindako jardueretan parte hartzen duten buruko gaixotasunak dituzten pertsonen joan-etorrietarako dirulaguntzak.

Laguntza hauen helburua da Laudioko osasun mentaleko zentroan tratamendua edo jarraipena jasotzen ari diren eta ekonomia arazoak dituzten pertsonen diruz laguntzea, baldin eta ASASAM elkarteak antolatutako eta haiek gizarteratzera bideratutako jardueretan etengabe parte hartzen badute, izan ere, zentro hori kolektibo honentzat erreferentia da inguru horretan, gizarteratze arloan, eta Laudioko osasun mentaleko zentroarekin koordinatuta.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak familiaren egoera orokorra ezagutu beharko duen arren, interesdunaren beraren egoera balioetsiko du honelako laguntzetarako.

Nahitaezkoa izango da ASASAM elkartearen aldeko txostena aurkeztea alde aurretik, zeinetan jasota egon behar den beren-beregi osasun mentaleko arazoak dituen pertsona etengabe joaten dela zentrori eta zentrori joateak harentzat dituen onurak.

Laguntza hauen bidez interesdunaren joan-etorrietako gastuak ordainduko dira, eta horretarako aintzat hartuko da zentroa dagoen tokira garraio publikoaz joateak duen kostua, interesdunak zeinahi garraibide erabilita ere.

Interesdunak berak zentzora joateari uzten badio, dirulaguntza eten egingo da edo ukatu egingo zaio.

Horrelako kasuetan, kontuan izanik azken xedea dela osasun mentaleko arazoak dituzten Amurrioko herritarrek gizarteratzeko jardueratan parte har dezatela sustatzea, laguntzaren eskatzaileari soilik lotutako baremo orokorra aplikatuko da (oinarri hauei erantsita doa), eta malgu hartuko da, orobat, gainerako kasuetan behar diren agiriak aurkeztea. Ezinbestekoa izango da tratamendu zentroen agiriak aurkeztea.

f) Aparteko beste egoera batzuk:

Jasotzen diren laguntzetan aukera zabala dagoen arren, oinarrizko gizarte zerbitzuan aurki litezke inoiz arau honetan aurreikusi gabeko behar kasuekin, edo, behar egoeran egon arren, araudian eskatzen diren betekizun guztiak egiaztatzerik ez duten eskatzaileekin.

Aparteko egoeretan oinarrizko gizarte zerbitzuak balioetsiko du egoera, eta aparteko egoera hori jasota geratu beharko da gizarte txostenean, zeina dagokion gizarte laguntzaileak egingo baitu eta ebazpen proposamenari erantsiko.

4. eskabideak egiteko prozedura

1. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia: behar egoeretan daudenentzako dirulaguntza eskaerak Amurrioko Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuan aurkeztu behar dira. Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskaerak, eta aurkezteko epea zabalik egongo da urte osoan.

2. Eskaera aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak erabat eta berariaz onartzea.

3. Hona interesdunek aurkeztu beharreko agiriak, oinarri hauetan jasotako kasuetan izan ezik:

a) Eskatzailearen eta helbide horretako egoiliarren edo erroldaturik dauden gainerako pertsonen NANaren, egoitza txartelaren edo pasaportearen fotokopia. Europar Batasuneko atzerritarrak baldin badira, Batasuneko Herritarren Erregistroaren ziurtagiria.

b) Familia udalerrian erroldaturik dagoela egiaztatzen duen errolda orria. Aurretixe Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerriren batean bizi izanez gero, udalerrri horretako errolda historikoaren egiaztatzea.

c) Familia liburuaren fotokopia eta, banandurik edo dibortziaturik egonez gero, auzi eskea edo hitzarmen arau-emailea.

d) Errentamendu kontratua eta alokairuaren azken ordainagiria. Etxebizitza jabetzan izanez gero, hipoteka maileguaren azken ordainagiriaren fotokopia.

e) Familia unitateko kide guztien lan bizitza.

f) Lan kontratuaren fotokopia eta familia unitatean lanean ari diren kide guztien azken nominarena.

g) Familia unitateko kide guztien kontu korronteen, aurrezki kontuen, bonuen, akzioen, pentsio planen eta abarren banku ziurtagiriak, datu hauekin: titularrak, saldo eguneratuak eta aurreko urtean sortutako interesak. Laguntza eskatu aurreko sei hilabeteetako banku mugimenduak.

h) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiri gaurkotua, familia unitatean 18 urte baino gehiago dituzten kide guztiek jasotzen dituzten pentsioak adierazten dituenak. Erakunde horrengandik inolako prestaziorik jaso ezean, hori egiaztatzen duen ziurtagiria. Familia unitatean 18 urte baino gehiago dituzten kide guztien langabezia kartillaren fotokopia.

i) Familia unitatean 18 urte baino gehiago dituzten kide guztien langabezia prestazioen edo jasotako laguntzen ziurtagiri gaurkotua, INEMek emana.

j) Errenta aitorpena edo, hala dagokionean, aitorpena egiteko betebeharra ez izatearen ziurtagiria, foru ogasunak emana.

k) Familia unitateko kide guztien landa eta hiri ondasunen ziurtagiria, Estatuko ogasunak emana (interesdunek baimenduz gero, udalak berak eska dezake ziurtagiri hori).

l) Familia unitateko kide guztiek jatorrizko herrialdean dituzten landa eta hiri ondasunen ziurtagiria.

m) Bankuko agiria, behar bezala beteta eta laguntzaren titularrak sinatuta.

n) Behar egoeretan daudenentzako udal laguntzak lehendabizikoz eskatuz gero, udalerrian benetan bizitzea egiaztatu beharko da, agiri hauek aurkeztuta: argiaren, uraren, gasaren, telefonoaren eta abarren ordainagiriak, ikastetxeetako matrikulen ordezkagiriak, mediku hitzorduak eta abar, edo beste edozein agiri, aurkeztutako errolda ziurtagirietan adierazten den egoitza aldian udalerrian benetan bizi izana frogatzen dutenak.

o) Alarguna izanez gero, ezkontidea hiltzean egindako testamentuaren kopia, edo halakorik egin ez bada, testamendua egin ez dela adierazten duen idazkia eta, horrelakoetan, estatuko ogasunaren ondasun agiria, zenduari dagokiona.

p) Lehendik behar egoeretan daudenentzako udal laguntzak jaso badira eta laguntza horien frogagiriak edo frogagirietako batzuk aurkeztu ez badira, agiri hauekin batera aurkeztu behar dira.

q) Beste batzuk.

5. Eskakerak balioestea eta ebaztea

1. Kasuan kasuko profesionalak egingo du hasierako balioespena aurkeztutako egoerari buruz eta oinarri arau hauetan eskatzen diren baldintzak betetzeari buruz, eta oinarrizko gizarte zerbitzuko profesionalen adostasuna izan beharko da egin beharreko ebazpen proposamenaren inguruan, baldin eta kasuan diren inguruabar bereziengatik beharrezkoa bada oinarrietako betebeharren bat malgutzea.

2. Oinarrizko gizarte zerbitzuak ebazpen proposamena egingo dio Amurrioko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrari. Ebazpena emateko bizkortasun handiagoa behar izanez gero, presako kasua delako, Alkatetzaren dekretu bidez ebaztea planteatuko da.

3. Genero indarkeria edo premia larriko egoeretako bizitoki eta mantenu gastuetarako dirulaguntzen kasuan (laguntzen bigarren multzoko b) eta c) ataletan jasoak), eta aintzat hartuta egoera horietan gertatzen diren inguruabar bereziak, arloko arduradun politikoak oinarrizko gizarte zerbitzuaren esku-hartze proposamenari oniritzia eman eta berehala emango zaio beharrezko babesa laguntza eskatu duen emakumeari eta, gainera, Alkatetzaren dekretu bidez ebazteko proposamena egingo da.

4. Eskakeraren ebazpen erabakia, beranduenik, eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean eman beharko da. Epe hori igaro eta eskaerak ebazpen adierazirik ez badu, ezetsizat joko da.

5. Dirulaguntza ukatzeko ebazpen hori arrazoitua izango da, eta Udalak eskatzaileari horren berri emango dio erabakiaren testu osoa bidalita, eta adieraziz ebazpenak administrazio bideari amaiera ematen dion edo ez, zer errekurtso jar daitezkeen, eta zein organori eta zer epetan aurkeztu behar zaizkion.

6. Ebazpena jakinaraztea

Udaleko organo eskudunak eskaera ebatziko du, eta ebazpena idatziz jakinaraziko zaio eskatzaileari, alderdi hauen gaineko informazioa emanez:

a) Laguntza ematen edo ukatzen den.

b) Laguntza onartzen bada, horren zenbatekoa.

- c) Ordaintzeko era.
- d) Justifikatzeko era eta epea.

7. Laguntza eman ondorengo protokoloa

Laguntza emateko ebazpena eman ondoren, onuradunak honako konpromisoak hartzen ditu:

- a) Jasotako prestazioa eskatu zen helbururako erabiltzea.
- b) Amurrioko Udalari frogatzea betekizunak eta baldintzak betetzen direla, eta emandako laguntzaren helburua zen gastua egin dela, justifikazioari eta jarraipenari buruzko oinarrietako 9. puntuan ezarritakoaren arabera.
- c) Udalari jakinaraztea hasiera batean hartutako ebazpenari eragin diezaioketen gizarte eta familia egoeraren aldaketak.
- d) Amurrioko Udalari jakinaraztea beste laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk eskuratu direla, emandako laguntzen helburu diren gastuak finantzatzeko.
- e) Amurrioko Udalak egiaztatu egingo du, ordenantza honetan ezarritako bitartekoak edo egoki iruditzen zaizkion bestelako batzuk erabiliz, emandako diru kopuruak nahi izandako helburuetarako egoki erabili diren; horretarako, gastua kontrolatuko du, eta, hala behar izanez gero, erantzukizunak eta funtsak itzultzeko eskatuko du, laguntzak ematea eragin zuen helburua bete ezean.

8. Laguntzak ordaintzeko era

Laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira unean uneko laguntzak direnean, eta, aldiz, hilean behin, aldian behingo laguntzak direnean.

9. Justifikazioa eta jarraipena

Emandako laguntzak justifikatzeko, frogagiriak aurkezteko epea hilabete izango da, ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera, laguntza ordainaldi batean ematekoa bada, ordainaldi bakarreko gastuetarako. Alokairu gastuak edo etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz gizarte larrialdiko egoera baino lehen hartutako kredituen interesetatik edo amortizaziotik sortutako gastuak ordaintzeko laguntzak zatika ordaintzekotan, laguntza emateko ebazpenean ezarriko da onuradunak gastu horien frogagiriak aurkeztu beharko dituela seihilekoan behin. Sei hileko aldi hori beharrezkoa iritzi bezainbat laburtu ahal izango da, eskatzailearen mugikortasun handia nabaritzen den kasuetan, alegia eskatzailea bizilekuz maiz aldatzen dela.

Ordainaldi bakarrak egitekotan onuradunak egin beharreko ordainketa zatikatu behar den kontzeptuetarako (oinarrizko beharren atalean jasotzen diren zenbait kontzeptu, hala nola osasun publikoak ematen ez dituen tratamenduak, premia biziko produktuen erosketa, esaterako jantziak, oinetakoak), laguntza emateko ebazpenean ezarriko da onuradunak gastu horien frogagiriak aurkeztu beharko dituela erreferentziazko profesionalak egindako proposamen teknikoan ezarritako aldietan. Gastua eta dagozkion frogagiriaren aurkezpena, laguntza ematen den urtea bukatu eta gero egin ahal izango dira, baldin eta haren ebazpena urteko azken hiru hilekoan ematen bada eta gastuaren izaerarengatik bidezkoa bada.

Hura frogatzeko aurkeztu daitezkeen agirien artean, ordainagiri pribatuak, jatorrizko fakturak, egindako gastuak bankutik ordaindu izanaren agiriak, eta ordainagiriak daude, gastu hauetarako: alokairua, etxebizitza mantentzeko gastuak eta etxebizitza kredituen interesak eta amortizazioa.

Ez dira justifikatuko familia mantentzeko laguntzak. Dena den, kasu horretan esku hartzen duten beste gizarte agente batzuekin koordinaturik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak onuradunaren gizarte eta familia egoeraren jarraipena egingo du, eskatzaileak zein bere elkarbizitza unitateko

gainerako pertsonak beraren ongizatera zuzendutako gizarteratze jarduketak zein neurritan egin dituzten balioesteko.

10. Laguntza galtzea

Onuradunek deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak gal ditzakete, aurrez espedientea irekita, ondoko kasuetan:

- (a) Datuak faltsutzen badira laguntza eskaeretan edo aurkeztutako agirietan.
- (b) Emandako laguntza aurkeztu eta onetsitako helbururako erabili ez bada.
- (c) Laguntzaren justifikazioa ezarritako epean aurkezten ez bada, berariaz eskatu arren.

(d) Laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako gastu osoa gainditzen badu.

(e) Oinarri hauetan eta laguntza emateko ebazpenean ezartzen diren betebeharretakoren bat betetzen ez bada.

(f) Laguntza galtzeak ekarriko du itzuli beharra ordura arte jasotako kopuruak eta ordaindu beharra berandutze interesak, dirulaguntza ordaindu zen unetik itzuli egin behar dela erabakitzen den arte diru horrek sortutakoak, Amurrioko Udalarentzako transferentzia baten bidez.

Edozein modutan, jasotako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira, halaber, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako kasuetan, eta bertan ezarritako baldintzekin.

11. Arau hausteak eta zehapenak

Deialdi honekin lotutako arau hauste eta zehapenetarako, emandako dirulaguntzei dagokienez, 38/2003 Legea Orokorrak, dirulaguntzenak, 52.etik 69.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

12. Araubide juridikoa

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Amurrioko Udalak onetsitako araudia, Toki Korporazioen Zerbitzuen Arautegia, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzena, hura garatzen duen Arautegia (887/2006 ED, uztailaren 21ekoa) eta aplikatzekoa den gainerako legeria osagarria.

13. Zabalkundea

Behar egoerentarako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza honi ahalik eta zabalkunderik handiena emateko, argitaratuko da ALHAOn, Amurrioko udaletxeko iragarki taulan, Hauxe da aldizkarian eta udalaren webgunean.

1. eranskina

ORO HAR APLIKATZEKO 2020AN % 4KO GEHIK.			
URTEKO GEHIENKO DIRU SARRERAK, ELKARBIZITZA UNITATEAREN TAMAINAREN ARABERA			
%	1	2	3 EDO GEHIAGO
	745,95	957,86	1.059,58
100	8.951,40	11.494,33	12.715,00
99	9.040,92	11.609,27	12.842,15
98	9.130,43	11.724,22	12.969,30
97	9.219,95	11.839,16	13.096,45
96	9.309,46	11.954,10	13.223,60

ORO HAR APLIKATZEKO 2020AN % 4KO GEHIK.			
URTEKO GEHIENEN DIRU SARRERAK, ELKARBIZITZA UNITATEAREN TAMAINAREN ARABERA			
%	1	2	3 EDO GEHIAGO
95	9.398,98	12.069,05	13.350,75
94	9.488,49	12.183,99	13.477,90
93	9.578,00	12.298,93	13.605,05
92	9.667,52	12.413,88	13.732,20
91	9.757,03	12.528,82	13.859,35
90	9.846,55	12.643,76	13.986,50
89	9.936,06	12.758,71	14.113,65
88	10.025,57	12.873,65	14.240,80
87	10.115,09	12.988,59	14.367,95
86	10.204,60	13.103,54	14.495,10
85	10.294,12	13.218,48	14.622,25
84	10.383,63	13.333,42	14.749,40
83	10.473,14	13.448,37	14.876,55
82	10.562,66	13.563,31	15.003,70
81	10.652,17	13.678,25	15.130,85
80	10.741,69	13.793,20	15.258,00
79	10.831,20	13.908,14	15.385,15
78	10.920,71	14.023,08	15.512,30
77	11.010,23	14.138,03	15.639,45
76	11.099,74	14.252,97	15.766,60
75	11.189,26	14.367,91	15.893,75
74	11.278,77	14.482,86	16.020,90
73	11.368,28	14.597,80	16.148,05
72	11.457,80	14.712,74	16.275,20
71	11.547,31	14.827,69	16.402,35
70	11.636,83	14.942,63	16.529,50
69	11.726,34	15.057,57	16.656,65
68	11.815,85	15.172,52	16.783,80
67	11.905,37	15.287,46	16.910,95
66	11.994,88	15.402,40	17.038,10
65	12.084,40	15.517,34	17.165,25
64	12.173,91	15.632,29	17.292,40
63	12.263,42	15.747,23	17.419,55
62	12.352,94	15.862,17	17.546,70
61	12.442,45	15.977,12	17.673,85
60	12.531,97	16.092,06	17.801,00
59	12.621,48	16.207,00	17.928,15
58	12.710,99	16.321,95	18.055,30
57	12.800,51	16.436,89	18.182,45
56	12.890,02	16.551,83	18.309,60
55	12.979,54	16.666,78	18.436,75
54	13.069,05	16.781,72	18.563,90
53	13.158,57	16.896,66	18.691,05
52	13.248,08	17.011,61	18.818,20
51	13.337,59	17.126,55	18.945,35
50	13.427,11	17.241,49	19.072,50
48	15.216,67	19.539,43	21.614,48

2. eranskina**DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAK 2019AN
BERMATUTAKO GUTXIENEO DIRU SARRERAK**

(Elkarbizitza unitateko kideen kopuruaren arabera)

EUKO KIDE KOPURUA	DSBEREN ZENBATEKOA (EURO HILEAN)
1	644,49 euro
2	827,59 euro
3 edo gehiago	915,47 euro

**30. OINARRIA. AMURRIOKO UDALEKO DIRU SARRERETAKO
PARTAIDETZA AMURRIOKO UDALERRIKO ADMINISTRAZIO
BATZARREN ARTEAN BANATZEKO OINARRIAK**

1976 Lezamako eta Arrastariko udalerriak Amurrioko udalerrinari eransteko prozesua amaitu zenetik, udalaren diru sarreretan partaide izateko ereduak finkatu zen Aloria, Artomaña, Baranbio, Delika, Larrinbe, Lekamaña, Lezama, Saratxo eta Tertangako administrazio batzarrentzat.

Administrazio batzar horietako bakoitzak bilakaera desberdina izan du biztanle kopuruaren aldetik, eta ikuspuntu geografikotik ere aldeak daude; horregatik, komeni da banaketa irizpide objektibo batzuk ezartzea, batetik, batzar bakoitzari gutxieneko finantzaketa bat ziurtatzeko, eta, bestetik, irizpide horiek egokitu daitezzen biztanle kopuruaren aldaketetara eta administrazio batzar bakoitzak ematen dituen zerbitzuetara.

Beharrezkoa da, halaber, epeak finkatzea Amurrioko Udalak batzarrei diru sarreretan duten partaidetza ordaintzeko, neurri horrekin administrazio batzarrek aukera izango baitute finantza kontuak hobeto planifikatzeko.

Horrez gain, hirigintza jarduerak batzar bakoitzak eman beharreko zerbitzuetan duen eragina aintzat hartuta, egoki jo da administrazio batzarren partaidetzari gehitzea bakoitzak bere lurraldean eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan benetan bildutako diru kopuruaren erdia.

Horretarako, guztizko funtsa lau tarte desberdinetan banatzea proposatzen da:

- Tarte finkoa: zati berdinetan banatuko da administrazio batzar guztien artean.
- Tarte aldakorra, batzar bakoitzak Arabako toki erakundeak finantzatzeko foru funtsetik jasotzen duen ehunekoaren arabera; haren banaketa, gaur egun, irizpide hauekin egiten da:
 - Biztanleak.
 - Etxebizitzak.
 - Ur hornidura, klorazio eta saneamendu zerbitzua.
 - Argiteria publikoaren zerbitzua.
 - Hilerriko zerbitzua.
 - Gizarte etxea egotea.

• Konpentsazio funtsa: administrazio batzar bakoitzari ziurtatzeko jasoko dituela, gutxienez, 2008ko aurrekontuetan esleitu zitzaizkion zenbateko hauek:

ADM. BATZARRA	TARTE ALDAGARRIA
* Aloria	7.385,74
* Artomaña	9.006,74
* Baranbio	14.838,33
* Delika	12.967,38
* Larrinbe	16.423,74
* Lekamaña	6.924,30
* Lezama	17.112,69
* Saratxo	14.330,30
* Tertanga	10.320,83
	109.310,05

• Aparteko tartea: urtero aldatuko da, administrazio batzar bakoitzean eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren behin betiko likidazio gisa benetan bildutako diru kopuruaren arabera.

Hau izango da udalaren diru sarreretako partaidetza Amurrioko udalerrian dauden administrazio batzarren artean banatzeko modua arautzen duten oinarrien behin betiko edukia:

1. OINARRIA. BANAKETAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA DUTEN ADMINISTRAZIO BATZARRAK

Udalaren diru sarreren banaketan parte hartzeko eskubidea aitortzen zaie administrazio batzar hauei: Aloria, Artomaña, Baranbio, Delika, Larrinbe, Lekamaña, Lezama, Saratxo eta Tertanga.

2. OINARRIA. BANATU BEHARREKO ZENBATEKO OROKORRA

Banatzeko zenbatekoa (A), guztira, urtero udalaren aurrekontuko 943.434 partidan helburu horretarako ezartzen den kopurua izango da; 2020ko ekitaldirako, 149.500,00 euro da.

Guztizko zenbateko hori hiru zati desberdinetan banatuko da: finkoa, aldagarria eta konpentsazio funtsa.

3. OINARRIA. TARTE FINKOA: ZENBATEKOA ETA BANAKETA

Tarte finkoaren zenbatekoa guztira (B) izango da udalaren aurrekontuan, 943.434 partidan, urtero jartzen den kopuruaren ehuneko 47koa.

Zenbateko hori zati berdinetan banatuko da banaketan parte hartzeko eskubidea duten administrazio batzar guztien artean.

4. OINARRIA. TARTE ALDAGARRIA: ZENBATEKOA ETA BANAKETA

Tarte aldagarriaren zenbatekoa guztira (C) izango da udalaren aurrekontuan, 943.434 partidan, urtero jartzen den kopuruaren ehuneko 48,14koa.

Horiek banatzean, batu egingo dira Arabako toki erakundeak finantzatzeko foru funtsaren banaketan urtero Amurrioko udalerriko administrazio batzar bakoitzari behin betiko esleitzen zaizkion zenbatekoak.

Batzar bakoitzak aurreko paragrafoan deskribatutako baturan duen partaidetzaren ehuneko berbera eskuratuko du tarte aldagarrian.

5. OINARRIA. KONPENTSAZIO FUNTSA: ZENBATEKOA ETA BANAKETA

Kompentsazio funtsaren zenbatekoa guztira (D) izango da udalaren aurrekontuan, 943.434 partidan, urtero jartzen den kopuruaren ehuneko 4,86koa.

Administrazio batzar bakoitzarentzat, tarte finkoaren eta aldagarriaren (B + C) batura 2008ko aurrekontuetan esleitu zitzaizkion zenbatekoekin alderatuko da.

Batura 2008ko esleipena baino txikiagoa ateratzen zaien administrazio batzarren kasuan, behar den zenbatekoa esleituko da biak berdintzeko.

Konpentsazio funtsaren zenbatekoa guztira ez bada iristen egin beharreko konpentsazio guztiak estaltzeko, banaketa hainbanatu egingo da batzar bakoitzaren konpentsazio beharrenden arabera.

Konpentsazio funtsean sobera geratzen den zenbatekoa tarte aldagarriaren irizpide berberekin esleituko da.

6. OINARRIA. APARTEKOTARTEA

Aurreko oinarrietan araututako tarteez gain, administrazio batzar bakoitzari banatu egingo zaio eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren behin betiko likidazio gisa benetan bildutako diru kopuruaren erdia, baldin eta likidazio horiek 2019ko ekitaldian gauzatu badira administrazio batzar bakoitzean 2012ko urtarrilaren 1az geroztik baimendutako oin berriko eraikuntzei dagozkien zerga gaiengatik, industrialdeetako eraikuntzenak izan ezik. Aipatutako zenbatekoa modu independentean sartuko da aurrekontuan eta lurralde bakoitzean gauzatutako zerga likidazioen berri emanda banatuko da.

Edozein arrazoi dela-eta eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga gisa bildutako diru kopuruak subjektu pasiboari itzuli beharko balitzaizkio, itzuli beharreko zenbatekoaren erdia gerora banatuko zaizkion aparteko tartetatik kenduko litzaioke kasuan kasuko administrazio batzarrari, aparteko tartea izapidetzen jarraituz gero, edo bestela gerora emango zaizkion dirulaguntzetatik.

Aparteko tartea finantzatzen duen aurrekontu kreditua nahikoa ez balitz, azken hiruhilekoan emandako behin betiko lizentziak hurrengo ekitaldiko aurrekontuen kontura finantzatuko dira.

Banaketa egiteko orduan, Amurrioko Udalak ziur jakingo balu administrazio batzarren bategen ez diela ur horniduraren tasa kobratzen herritarrei, batzar horri legokiokkeen zenbatekoa ez da banaketan sartuko, eta dagokion aurrekontu kreditua egoki irizitako aurrekontu aldaketak finantzatzeko erabili ahal izango da.

Bildutako diru kopuruak aintzat hartuta, 2019ko ekitaldirako tarte horretako zenbatekoa 7.740,88 euro izango da.

7. OINARRIA. DIRU SARRERETAKO PARTAIDETZAK ORDAINTZEA

Aurreko oinarrietan deskribatutako irizpideen arabera kalkulaturako diru sarreretako partaidetzak epe hauetan ordainduko ditu Amurrioko Udalak:

- a) Tarte finkoa, urteko lehen hiruhilekoan.
- b) Tarte aldagarria, urteko bigarren hiruhilekoan.
- c) Konpentsazio funtsa, urteko laugarren hiruhilekoan.
- d) Aparteko tartea, urteko hirugarren hiruhilekoan.

Epe bakoitzean ordaindutako zenbatekoak administrazio batzar bakoitzak Amurrioko Udalarekin izan ditzakeen zor kredituekin konpentsatuko dira.

31. OINARRIA. EUSKARA IKASTEAGATIK EMATEN DIREN BEKEN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ARAUA

1. LEGE ETA EKONOMIA ESPARRUA

38/2003 Legeak (azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra) dirulaguntzak definitzen ditu, eta dio Administrazioak pertsona publikoei edo pribatuei egiten dizkien "diru entregak" direla, honako baldintza hauek betetzen direnean:

- Diru ematea onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.
- Diru ematea lotuta egotea helburu bat lortzeari, proiektu bat gauzatzeari, jarduera bat egiteari, portaera berezi bat izateari, izan horiek dagoeneko eginak edo izan gerora egitekoak, edo egoera bat gertatzeari; onuradunak ezarritako betebeharrak formal zein materialak bete beharko ditu.
- Finantzuriko proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburu izatea onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat edo xede publiko bat sustatzea.

38/2003 Legeak 9. artikuluan ezartzen duenez, dirulaguntzak eman aurretik, arauak onartu beharko dira, dirulaguntzak, hain zuzen, legeak ezarritako moduan emateko oinarriak ezartzen dituztenak. Oinarri hauen xedea da euskara ikasteko ematen diren beken esparrua arautzea, Amurrioko udalerrian euskararen ezagutza sustatzeko.

2. BETEKIZUN ETA BALDINTZA OROKORRAK

2.1. Amurrioko Udalak beka emango dizkie, Euskara Zerbitzuaren bitartez, Amurriko erroldatuta dauden eta euskalduntze prozesu batean sartuta dauden guztiei, baita Amurrioko Udaleko langileei ere.

2.2. Bekak 2019-2020 ikasturtean (2020ko urriaren 1era arte) egindako ikastaroen arabera onetsiko dira, eta ordaindutako matrikularen ehuneko 75 izango da dirulaguntza, Amurrioko Udaleko langileen kasuan izan ezik, horientzako dirulaguntza kostuaren ehuneko 100 izango baita. Irizpide horri eutsi egingo zaio barnetegietako ikastaroetarako, 5. urratsetik gorako mailetakoak badira.

2.3. Norberak bere kabuz ikasteko ikastaroak ere diruz lagunduko dira, betiere, HABEK homologatutako zentroetan egiten badira, bai eta ezagutza maila hobetzea eta familiako hizkuntza ohituren aldaketa erraztea xedetzat duten familia ikastaroak ere.

2.4. Gehienez ere, 1961,06 euroko beka finkatzen da pertsona baten euskalduntze prozesu osorako.

3. ONURADUNEN DEFINIZIOA

3.1. Euskara ikasteko ematen diren beken onuradunek baldintzak hauek bete beharko dituzte:

- Amurrioko udalerrian erroldatuta egotea ikastaroa ematen den aldiaren (baldintza hau partez betetzen baldin bada, emango den bekaren zenbatekoa erroldatuta egon den denboraren proportziozkoa izango da), edo Udaleko langilea izatea.

- Euskara eskolen ehuneko 80ra edo gehiagora joan izana egiaztatzea.

- 16 urte beteta edukitzea.

4. EUSKARA IKASTEAGATIK 2020AN EMANGO DIREN BEKEN GEHIENENKO ZENBATEKOA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

4.1. 2020ko ekitaldirako esleitutako beken zenbatekoa, guztira, ezingo da izan 23.000,00 euro baino handiagoa. Epe barruan aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, diruz laguntzeko kopuruek guztira gainditzen badute dirulaguntza horiek emateko dagoen aurrekontu esleipena, bana-banako gehieneko zenbatekoak behar besteko ehunekoan murriztuko dira, aipatutako aurrekontu esleipenarekin haiek estali ahal izateko.

4.2. Eskaerak eta agiriak aurtengo urriaren 1etik 31ra bitartean aurkeztu beharko dira Amurrioko Udaleko erregistro orokorrean.

4.3. Agiri hauek aurkeztu beharko ditu onuradunak:

- Eskaera orria, euskara ikasteko beka jasotzeko.
- Egindako ordainketaren frogagiria.
- Kasuan kasuko euskaltegiak egindako bertaratze ziurtagiria.
- Zinpeko aitortpena, jasotzen duena eskatutako dirulaguntzarekin eta eska daitezkeen beste batzuekin gainfinantzaketarik ez dagoela, eta, hala badagokio, berariaz adierazita zein den HABEri eskatutako zenbatekoa.
- NANaren fotokopia eta hirugarrenaren alta orria behar bezala beteta, beka lehenengo aldiz eskatzen bada, edo zenbatekoa beste kontu korronte batean sartzea eskatzen bada.

4.4. Amurrioko Udalak beka eskaeren ebazpenak udaletxeko iragarki taulan eta web orrian jakinaraziko ditu. Ukatutako eskaeren jakinarazpenak, berriz, posta arruntez helaraziko zaizkie interesdunei.

5. LAGUNTZAK IZAPIDETZEA

5.1. Udalaren Euskara Zerbitzuak izapidetuko ditu oinarri hauen bidez araututako beken eskaerak, eta organo eskudunari proposatuko dio horiek onartzea, bidezkoa baldin bada.

5.2. Amurrioko Udaleko Euskara Zerbitzuan eskuratu ahalko dira 4.3. klausulan adierazitako hurrengo agiriak:

- Eskaera orria, euskara ikasteko beka jasotzeko.
- Zinpeko aitortpena.
- Hirugarrenaren alta orria.

32. OINARRIA. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK ANTOLATUTAKO EUSKARAZKO IKASTAROETARA JOATEAGATIK EMATEN DIREN BEKEN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ARAUA

1. LEGE ETA EKONOMIA ESPARRUA

38/2003 Legeak (azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra) dirulaguntzak definitzen ditu, eta dio Administrazioak pertsona publikoei edo pribatuei egiten dizkien “diru entregak” direla, honako baldintza hauek betetzen direnean:

- Diru ematea onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.
- Diru ematea lotuta egotea helburu bat lortzeko, proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat egiteko, portaera berezi bat izateko, izan horiek dagoeneko eginak edo izan gerora egitekoak, edo egoera bat gertatzeko; onuradunak ezarritako betebeharrak formal zein materialak bete beharko ditu.
- Finantzuriko proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburu izatea onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat edo xede publiko bat sustatzea.

38/2003 Legeak 9. artikuluan ezartzen duenez, dirulaguntzak eman aurretik, arauak onartu beharko dira, dirulaguntzak, hain zuzen, legeak ezarritako moduan emateko oinarriak ezartzen dituztenak. Oinarri hauen xedea da euskara ikasteko ematen diren beken esparrua arautzea, Amurrioko udalerrian euskararen ezagutza sustatzeko.

2. BETEKIZUN ETA BALDINTZA OROKORRAK

2.1. Amurrioko Udalak Amurrioko erroldatuta dauden eta euskarazko udako ikastaroetan parte hartzen duten guztiei emango die beka, haren Euskara Zerbitzuaren bitartez.

2.2. Bekak egindako ikastaroen arabera onetsiko dira, eta ordaindutako matrikularen ehuneko 50 diruz lagunduko da.

2.4. Gehienez ere, 100 euroko beka finkatzen da pertsonako eta urteko.

3. ONURADUNEN DEFINIZIOA

3.1. Euskarazko udako ikastaroetara joateagatik ematen diren beken onuradunek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Amurrioko udalerrian erroldatuta egotea.
- Ikastaroaren ehuneko 80ra edo gehiagora joan izana egiaztatzea.
- 16 urte beteta edukitzea.

4. EUSKARAZKO UDAKO IKASTAROETAN PARTE HARTZEAGATIK 2020AN EMANGO DIREN BEKEN GEHIENENKO ZENBATEKOA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

4.1. 2020ko ekitaldirako esleitutako beken zenbatekoa, guztira, ezingo da izan 500,00 euro baino handiagoa. Epe barruan aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, diruz laguntzeko kopuruek guztira gainditzen badute dirulaguntza horiek emateko dagoen aurrekontu esleipena, bana-banako gehieneko zenbatekoak behar besteko ehunekoan murriztuko dira, aipatutako aurrekontu esleipenarekin haiek estali ahal izateko.

4.2. Eskaerak eta agiriak aurtengo urriaren 1etik 31ra bitartean aurkeztu beharko dira Amurrioko Udaleko erregistro orokorrean.

4.3. Agiri hauek aurkeztu beharko ditu onuradunak:

- Eskaera orria, euskarazko udako ikastaroetara joateagatik beka jasotzeko.
- Egindako ordainketaren frogagiria.
- Ikastaroa antolatu duen erakundeak egindako bertaratze ziurtagiria.
- Zinpeko aitortpena, jasotzen duena eskuratutako dirulaguntzarekin eta eska daitezkeen beste batzuekin ez dagoela inolako gainfinantzaketarik.
- NANaren fotokopia eta hirugarrenaren alta orria behar bezala beteta, beka lehenengo aldiz eskatzen bada, edo zenbatekoa beste kontu korronte batean sartzea eskatzen bada.

5. LAGUNTZAK IZAPIDETZEA

5.1. Udalaren Euskara Zerbitzuak izapidetuko ditu oinarri hauen bidez araututako beken eskaerak, eta organo eskudunari proposatuko dio horiek onartzea, bidezkoa baldin bada.

5.2. Amurrioko Udaleko Euskara Zerbitzuan eskuratu ahalko dira 4.3. klausulan adierazitako hurrengo agiriak:

- Eskaera orria, Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako euskarazko udako ikastaroetara joateagatik beka jasotzeko.
- Zinpeko aitortpena.
- Hirugarrenaren alta orria.

33. OINARRIA. AISIALDIKO BEGIRALE ETA AISIALDIKO ZUZENDARI TITULU OFIZIALAK IKASTEAGATIK BEKAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ARAUA

1. LEGE ETA EKONOMIA ESPARRUA

38/2003 Legeak (azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra) dirulaguntzak definitzen ditu, eta dio Administrazioak pertsona publikoei edo pribatuei egiten dizkien "diru entregak" direla, honako baldintza hauek betetzen direnean:

– Diru entrega gauzatzea onuradun diren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik egin gabe.

Diru ematea lotuta egotea helburu bat lortzeko, proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat egiteko, portaera berezi bat izateko, izan horiek dagoeneko eginak edo izan gerora egitekoak, edo egoera bat gertatzeko; onuradunak ezarritako betebeharrak formal zein materialak bete beharko ditu.

– Finantzuriko proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburu izatea onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat edo xede publiko bat sustatzea.

38/2003 Legeak 9. artikuluan ezartzen duenez, dirulaguntzak eman aurretik, arauak onartu beharko dira, dirulaguntzak, hain zuzen, legeak ezarritako moduan emateko oinarriak ezartzen dituztenak. Oinarri hauen xedea da aisialdiko begirale eta aisialdiko zuzendari titulu ofizialak lortzeko bekak emateko esparrua arautzea.

2. BETEKIZUN ETA BALDINTZA OROKORRAK

2.1. Amurrioko Udalak, bere Euskara Zerbitzuaren bitartez, bekak emango dizkie Amurrioko erroldatuta dauden eta aisialdiko begirale eta aisialdiko zuzendari ikastaroa amaitu eta titulu ofiziala eskuratu duten pertsona guztiei.

2.2. Egindako ikastaroen arabera onetsiko dira bekak, aurrez egiaztatuta eskuratu dela dagoen titulu ofiziala, 2020an emana, 2020ko urriaren 1a arte (edota, titulua izapidetze aldiaren badago, aisialdiko eskola, enpresa edo entitate homologatu batek egindako ziurtagiria, egoera hori egiaztatzen duena). Ordaindutako matrikula eta, halakorik izanez gero, aterpetxeetako egoitza gastuak batuta ateratzen den zenbatekoaren ehuneko 50 izango da dirulaguntza.

2.3. Ikastaroak osorik euskaraz emana izan behar du, eta zati teorikoan gutxienez 200 ordu behar dira.

2.4. Gehienezko bekak ezartzen dira: aisialdiko begirale ikastarorako, 200 euro; aisialdiko zuzendari ikastarorako, 90 euro.

3. ONURADUNEN DEFINIZIOA

3.1. Euskara ikasteko ematen diren beken onuradunek baldintzak hauek bete beharko dituzte:

– Amurrioko udalerrian erroldatuta egotea.

– Ikastaro osoa euskaraz egitea eta zati teorikoa gutxienez 200 ordukoa izatea.

4. EUSKARA IKASTEAGATIK 2020AN EMANDAKO BEKEN GEHIENENKO ZENBATEKOA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

4.1. 2020ko ekitaldirako esleitutako beken zenbatekoa, guztira, ezingo da izan 2.050,00 euro baino handiagoa. Epe barruan aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, diruz laguntzeko kopuruek guztira gainditzen badute dirulaguntza horiek emateko dagoen aurrekontu esleipena, bana-banako gehieneko zenbatekoak behar besteko ehunekoan murriztuko dira, aipatutako aurrekontu esleipenarekin haiek estali ahal izateko.

4.2. Eskaerak eta agiriak aurtengo urriaren 1etik 31ra bitartean aurkeztu beharko dira Amurrioko Udaleko erregistro orokorrean.

4.3. Agiri hauek aurkeztu beharko ditu onuradunak:

– Eskaera orria, aisialdiko begirale edo zuzendari titulu ofizialaren ikastaroko beka eskuratzeko.

– Ordainagiria, matrikularena eta, halakorik balego, aterpetxeetako egoitza gastuena.

Asistentzia ziurtagiria, aisialdiko eskola, enpresa edo entitate homologatu batek egina; berriaz adierazi behar da bertan eskoletan zer hizkuntza erabili den, zati teorikoan zenbat ordu eman diren eta eta ikastaroaren kostua zenbatekoa izan den.

– Zinpeko aitortpena, jasotzen duena eskuratutako dirulaguntzarekin eta eska daitezkeen beste batzuekin ez dagoela inolako gainfinantzaketarik.

– NANaren fotokopia eta hirugarrenaren alta orria behar bezala beteta, beka lehenengo aldiz eskatzen bada, edo zenbatekoa beste kontu korrante batean sartzea eskatzen bada.

5. LAGUNTZAK IZAPIDETZEA

5.1. Udalaren Euskara Zerbitzuak izapidetuko ditu oinarri hauen bidez araututako beken eskaerak, eta organo eskudunari proposatuko dio horiek onartzea, bidezkoa baldin bada.

5.2. Amurrioko Udaleko Euskara Zerbitzuan eskuratu ahalko dira 4.3. klausulan adierazitako hurrengo agiriak:

– Eskaera orria, aisialdiko begirale edo zuzendari titulu ofizialaren ikastaroko beka eskuratzeko.

– Zinpeko aitortpena.

– Hirugarrenaren alta orria.

34. OINARRIA. EGOERA OSO LARRIAN DAUDEN HERRIALDEETAKO ADINGABEAK AMURRIION UDAN EDUKITZEKO PROGRAMETARAKO 2020KO DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Hitzaurrea

1995etik Amurrioko Udalak laguntza ematen du adingabeak, erbesteratu sahararren kanpamentuetan bizi diren adingabeak, udan hartzeko programetarako. Laguntza horren eremua zabaldu nahi du egoera larrian dauden beste herrialde batzuetako adingabeak ere hartzeko, hain zuzen ere udan aldi batez atzerrian bizitzeak onura ekarriko dien adingabeak. Adingabe horien udako egonaldia hainbat euskal elkarteek sustatzen dituzte.

Udalak ondo daki zein garrantzitsua den honelako programak bultzatzea, alde batetik onuragarriak direlako etortzen diren adingabeentzat eta beraien senideentzat, eta bestetik konpromiso eta elkartasun loturak ezartzen dituztelako onuradunen eta amurriotarren artean (eta udala amurriotar guztien ordezkaria da), eta horregatik 2020an 6.000 euro ezarri ditu hainbat arrazoren-gatik (hondamendi naturalak, gatazka armatuak) egoera oso larrian dauden herrialdeetako adingabeak 2020ko udan hartzeko dirulaguntzak emateko gure inguruan horretan aritzen diren irabazteko xederik gabeko entitateei.

Ordenantza honen barruan, dirulaguntzak sartzeko oporrez besteko aldietara hedatzen diren aldi baterako harreretarako, Amurrioko familiek berek sustaturik, lehenago gure ingurunean diharduten irabazteko asmorik gabeko antolakunde horien harrera programetan parte hartu eta arrazoi humanitarioengatik adingabeen aldi baterako harrera aldia luzatu nahi badute.

Exekuzio arauak

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da guztiz egoera ahulean dauden herrialdeetako haurrak etxean hartzeko programetarako 2020an dirulaguntzak emateko aurrekontu partidaren exekuzioa arautzea. Bi harrera mota egongo dira: bata oporraldietakoa, irabazteko asmorik gabeko antolakundeen harrera programen bitartez, eta beste mota bat harrera aldi luzeagoetarako, lehenagoko programetan parte hartu duen adingabeentzat, haien harrera Amurrioko familiek berek bultzatzen dutelarik. Kasu batean nahiz bestean, adingabeak Amurrioko familiek hartuko dituzte etxean. Programaren xedea da adingabe horien ongizatea eta, aldi berean, gure udalerriko biztanleengan benetako elkartasun kultura sortzea sustatzen laguntzea, irabazteko xederik

gabeko elkarte, antolakunde eta bestelako entitateen bermearekin eta, arrazoi humanitarioengatik familiek bultzatutako harreraren kasuan, eskumena duen administrazioaren bermearekin.

2. Erakunde onuradunak

Dirulaguntzak eskatu ahaliko dituzte deialdiaren xedearekin bat datozen jarduerak egiten dituzten irabazteko xederik gabeko elkarteek eta entitateek, betekizun hauek betez gero:

a) Kasuan kasuko erregistroan formalki eratuta eta inskribatuta egotea, gutxienez eskaerak aurkezteko epea amaitu baino urtebete lehenagotik.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra edukitzea.

Eragin horietarako, ordezkaritza iraunkortzat hartuko da kasuan kasuko entitateak gizarte oinarria (bazkideak, boluntarioak edo antzekoak) duten egitura esanguratsuak Euskal Autonomia Erkidegoan dituela agiri bidez frogatu ahal denean. Kasu honetan, ordezkaritza iraunkorrak bere gain hartzen du eskaerak aurkezteko erantzukizun zuzena, eta proiektuaren agiri multzoa, kontabilitatea eta kudeaketa partekatua Euskal Autonomia Erkidegoko bulegoan mantentzeko konpromisoa. Proiektuaren kudeaketa partekatua izango da hurrengoetan parte hartzea: proiektuaren identifikazioa, formulazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

c) Amurrioko Udalak finantzatu baditu aurreko deialdietan, proiektu horien kasuan kasuko likidazioak eta jarraipen txostenak ezarritako baldintzak beteta eta epealdiaren barruan aurkeztuta egon behar dira.

d) Deialdiaren xedearekin bat datozen jarduerak egiten eskarmentua dutela frogatu behar dute, eta programatzen diren proiektuak, finantza laguntza jasotzen dutenak, gauzatzeko gaitasuna ere bai.

e) Gaitasuna edukitzea elkartasuna mugiarazteko, norberaren baliabideak eta baliabide pribatuak sortzeko nahiz beste instituzio edota erakundeetatik finantza laguntzak eskuratzeko.

Oinarri honen lehen paragrafoan aipatutako entitateek ezin dute eskatu dirulaguntzarik baldin eta estatutuak, egoera juridiko diplomatikoa edo beste inguruabarren bat dela-eta oinarri hauetan ezarritakoa eta, zehazkiago, 10. eta 12. oinarriek ezarritakoa bete ezin badute.

Deialdi honetara aurkezteko aukeratik kanpo geratzen dira beren-beregi izaera publikoko instituzioak edota erakundeak eta aurrezki erakundeak, baita irabazteko xedea duten enpresak eta bestelako erakundeak ere.

Oporraldietatik kanpo ere arrazoi humanitarioengatik aldi baterako harrerarako dirulaguntza eskatu ahal izango dute ondoko baldintza hauek betetzen dituzten familiek:

a) Lehenago irabazteko xederik gabeko antolakundeek sustatutako oporraldietako harrera programetan parte hartu izana.

b) Lehenago, programa horien bitartez, arrazoi humanitarioengatik zuzenean sustatzen duten harreraren gai den adingabea etxean hartu izana.

c) Eskumena duen administrazioaren adostasuna izatea (Arabian, Arabako Foru Aldundia-rena, bertako Adingabeen Kontseiluaren bitartez).

Hala eta guztiz ere, or har, dirulaguntza baten onuradun izan nahi dutenek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Dirulaguntzei buruzko Orokorraren, 13. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako betekizunak bete behar dituzte.

3. Diruz laguntzeko moduko programak

Udalak babesten dituen programak jarraian zehazten diren irizpideei lotu beharko zaizkie:

1- Etortzen diren umeei sorlekuan falta zaiena eskaini behar zaie, hau da, hondamendi naturalak edo gatazka armatuak direla-eta edo beste inguruabar batzuen poderioz ohiko bizimoduan urri duten ongizaterako behar duten gutzia.

2- Programa bakoitzean helburuak lortu diren edo ez ebaluatzeko prozesua ezarri behar da.

Programek ondoko betekizun hauek bete behar dituzte, gutxienez, deialdi honetan onartzeko:

1- Ekintzaren helburuak bat etortzea aurreko puntuan definitutako irizpide orokorrekin.

2- Hurrengo hauen azalpen egokia eta behar bestekoa: helburuak, egingo diren jarduerak, aurreikusitako baliabideak, programan ezarritako ekintzen ardura edukiko duen entitatearen lan eskarmentua eta irabazteko xederik gabeko entitatearen edo elkartearen eta adingabeen herrialdeko entitateen arteko erlazioa.

3- Adingabeak opor garaian hartzea (udako hiletan, neguan) Amurrioko udalerrian bizi diren familiek.

4- Familia harreragileek berek zuzenean sustatutako harreraren kasuan, orobat, puntu honetako 1. irizpidearen arabera izan behar da harrera, oporraldiak baino luzeagoko aldietan egingo dira harrerak, eta behar adina egiaztatuta egon beharko da harreraren helburuak aurretik adierazitako irizpideen arabera direla.

Deialdi honen eraginetarako, adingabeak hartzeko programen eremu geografikoak ez du mugarik edukiko.

4. Dirulaguntzen zenbatekoa eta ezaugarriak

1. Dirulaguntzak urtekoak dira; beraz, hasitako programekin, jada dirulaguntza jaso dutenekin, jarraitu nahi izanez gero, beste eskaera bat aurkeztu beharko da hurrengo deialdi batean.

2. Udalaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuan 23105.481 zenbakiko partida dago (“Udalak kudeatzen dituen laguntzak eta emariak, adingabeen egonaldiak udan”), eta 6.000 euroz hornituta dago udan umeak etxean hartzeko programetarako dirulaguntzak emateko. Deialdi honen babesean emango diren laguntzak partida horretako kredituari egotziko zaizkio.

3. Oro har, deialdi honen zortzigarren oinarriko bigarren idatz zatian xedatutako kasuetan izan ezik, Amurrioko Udalak programa baterako ematen duen dirulaguntzaren zenbatekoa hura sustatzen duen entitateak eskatutako guztia (ehuneko 100) izan daiteke.

4. Programa batean aurrekontu desbiderapenen bat gertatzen bada oinarrien arabera dirulaguntza jaso dezaketen gastuetan, dirulaguntzan ez dira sartuko gastu horiek (zenbatekotik kenduko dira).

5. Irabazteko xederik gabeko entitateek eta elkarteek zehaztu beharko dute ea deialdira aurkeztutako programetarako EAEko, Espainiako, Europar Batasuneko edo atzerriko beste erakunde publikoren baten finantza laguntza eskatu edo eskuratu den, eta halakorik eskuratu bada, zerrenda aurkeztu behar da, bakoitzaren kopurua eta helburua zehaztuta.

6. Estatuko nahiz nazioarteko beste administrazio edo entitate publiko edo pribatu batek emandako laguntza xede bererako eskuratzeko haiek emateko hartutako erabakia baldintzatu edota aldarazi dezake.

7. Dirulaguntzen arloan arau hausterik gertatuz gero, zehapena ezartzeko prozedura aplikatu beharreko arau xedapenen arabera izapidetuko da.

8. Oro har, deialdi honen zortzigarren oinarrian xedatutakoaz izan ezik, Amurrioko Udalak familia harreragileen banakako eskaera bakoitzerako ematen duen dirulaguntza, gehieneko zenbatekoaren ehuneko ehunera heldu daiteke, deialdi honen bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

5. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

1. Hartzen diren umeak beren herrialdeetatik Amurrioko udalerrira ekartzeko gastuak eta udako egonaldiako egiten zaizkien aseguruak eragiten dituzten gastuak, gehienez 600 euro umeko. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da izan gastu horien benetako kostua baino gehiago.

2. Amurrioko Udalak umeak udan hartzeko programetarako ematen dituen dirulaguntzek umeok hartzen dituzten Amurrioko familiek edo programa sustatzen duten entitateek egindako ekarpenak konpentsatzen dituzte, hain zuzen ere aurreko puntuan zehaztutako gastuak.

3. Amurrioko udalerriko harrera-familiek berek zuzenean sustatutako harreraren kasuan, diruz laguntzeko moduko gastuak, gainera, etxean hartutako adingabeen oinarritzko beharri-
zan jakin batzuk betetzeko direnak ere izan daitezke, honako hauek besteak beste: jantziak, oinetakoak, osasun gastuak, aseguruak, eskolatzeari, jarduera osagarrietan parte hartzea, gehienez ere 1.000 euroraino lekualdatutako haur bakoitzeko, eta laguntza ezin daiteke izan inoiz ere gastu horien benetako zenbatekoa baino handiagoa.

6. Eskaera egiteko prozedura

1. Aurkezteko lekua eta epea: Guztiz egoera oso ahulean dauden herrialdeetako umeak Amurrion udan hartzeko programak finantzatzeko dirulaguntzen eskaerak Amurrioko Udalean aurkeztu behar dira (Juan Urrutia plaza z/g, PK: 01470) deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 30 egun natural pasatu baino lehen. Nolanahi ere, eskaerak posta ziurtatuz bidal daitezke; 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritako bideak ere erabil daitezke aurkezteko. Garaiz eta behar bezala aurkezten diren eskaerak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

2. Eskaera aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak erabat eta berariaz onartzea.

3. Irabazteko asmorik gabeko entitateek, elkarteek eta bestelako pertsona juridikoek agiri hauek aurkeztu behar dituzte gutxienez:

a) Eredu ofizialean egindako eskaera, entitatearen legezko ordezkariak duen pertsonak sinatua.

c) Erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko (edo dena delako tokiko) kasuan kasuko administrazio erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen agiria. - Eskaera izenpetzen duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia eta erakunde eskatzailearen izenean eta ordezkariaren jardun dezakeela egiaztatzen duen agiria.

d) Eskaerarekin batera giza baliabideen organigrama eta haiei buruzko txostena aurkeztu behar dira, eta langile bakoitzaren lotura eta dedikazioa zehaztu.

e) Aurreko urteko balantze ekonomikoa, eskuratutako laguntzei, haien jatorriari, kopuruari eta sortutako berezko baliabideei aipamen zehatza eginez.

f) "Amurrion hartuko diren umeek eragingo dituzten gastuen aurrekontu xehatua; gainera, onuradunak erabiliko dituen bere baliabideak eta beste erakunde batzuei eskatutako dirulaguntzak edo haiek emandakoak zehaztu behar ditu."

g) Estatutuen fotokopia kaukotua, eta horrekin batera Identifikazio Fiskaleko Kodea eta hirugarrenaren alta, behar bezala beteta, dirulaguntza ordaintzeko jakin beharrekoa den banku kontuko datu eta guzti.

h) Entitate eskatzaileak zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean duela frogatzen duten agiriak.

i) Adierazpena, jasotzen duena ez duela dirulaguntzak eskuratzeko, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren, dirulaguntzenaren, 13. artikuluko debekuetako bat ere.

j) Entitate eskatzaileak deialdi honetako zazpigarren oinarrian adierazitako balorazio irizpideetan aintzat hartzeko egoki jotzen dituen agiriak.

k) Gomendatzen da agiriak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial batean aurkezteak, eta beste hizkuntza batzuetan daudenak horietako batera itzultzea, zazpigarren oinarriko balorazio irizpideetan behar bezala aintzat hartu daitezen.

l) Harrera-familiak berek zuzenean sustatutako harreraren kasuan, hauek dira aurkeztu behar diren agiriak:

1- Eredu ofizialaren arabera eskabidea, pertsona harreragileak berak izenpetua.

2- Zaintza izango duten pertsona harreragileen nortasun agiriak, eta etxean hartutako adingabearena.

3- Arrazoi humanitarioak dituen egonaldirako adostasun txostena, eskumena duen administrazioak egina, egiaztatzen duena indarrean dagoen eta kasuari aplikatzekoa den araudian eskatutakoa betetzen dela.

ll) Eskaera zuzentzea eta espediente artxibatzea: Eskaerak guztiz beteta ez badaude, edo nahitaezko agiri guztiak aurkezten ez badira, edo agiritan zuzentzeko moduko akatsen bat badago, interesdunari eskatuko zaio falta dena aurkezteko edo akatsa zuzentzeko; horretarako, 10 egun balioduneko epea emango zaio eskaera jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta adieraziko zaio eskatutakoa egin ezean dirulaguntzaren eskaeran atzera egintzat hartuko dela.

m) Beharrezkotzat jotzen duenean Amurrioko Udalak beste agiri batzuk ere eskatu ahal izango ditu.

7. Proiektuak baloratzeko irizpideak

Eskatu diren dirulaguntzak ematea edo ukatzea nahierakoa izango da, eta Amurriko Udalak ez du inolako betebeharririk hartzen aurkezten diren eta deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei laguntza ekonomikoak esleitzeko, eta udalak hura esleitu gabetzat aitortzeko duen eskumenaren kaltetan izan gabe. Oporraldietako harrera-programak irabazteko asmorik gabeko antolakundeek sustatuak direnean bakarrik, ondoko kontu hauek balioetsiko dira, adierazten den baremoaren arabera:

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Oinarrietako eskakizunetara egokitzea	BAI/EZ
1. Programa edo proiektuari eta haren inguruabarrei buruzko informazioa	4
2. Jardueren eta aurreikusitako emaitzen arteko koherentzia	4
3. Jarraipen eta ebaluazio adierazle zehaztapena	4
4. Genero ikuspegia edukitzea	4
5. Familietan hartutako umeen kopurua (1)	80
6. Ekintza Amurrioko udalerrian sustatzea	4

(1) 25 puntu hartutako lehen umeagatik, 25 puntu bigarrenagatik, 15 hirugarrenagatik, 15 laugarrenagatik.

Aurreko irizpideen arabera puntu batura (bosgarrena kontatu gabe) 10 izan behar da gutxienez: puntuazio horretara heltzen ez diren programek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

Puntuazioak programaren dirulaguntza ehunekoa zehaztuko du, ondokoak kontuan hartuta: diruz lagundu daitezkeen gastuak (kontzeptua zein zenbatekoak), gastuen benetako kostua eta deialdiko zortzigarren oinarriko bigarren idatz zatian ezarritako murrizketak.

8. Proiektuak aztertzea eta hautatzea, eta deialdia ebaztea

1. Deialdi honetara aurkezten diren programak Amurrioko Udalaren gizarte gaietarako udal batzordearen ordezkariak eta berari atxikitako teknikariak ebaluatuko dituzte, aurreko zazpigarren oinarrian jasotzen den baremoa kontutan hartuta. Horretan deialdi honen esparruarekin zerkusirik daukaten pertsona, entitate, erakunde eta enpresen aholkularitza jaso ahal izango dute.

2. Programa edo eskaera bakoitzerako emango den dirulaguntza ehunekoa ezarri ondoren, dirulaguntza guztiak ehuneko berean murriztu ahal izango dira, diruz lagundutako programa edo eskaeren artean deialdi honetako baldintzak betetzen dituztenak sartu ahal izateko.

3. Irabazteko xederik gabeko antolakundeek sustatutako programetarako eskaerak nahiz harrera-familiak egindakoak finantzatzea ziurtatzeko, aurrekontu partidaren banaketa ondoren azaltzen den moduan egingo da: ehuneko 66,66 lehenengoetarako, eta ehuneko 33,33 bigarrene-tarako, baina banaketa ehunekoa edozein modalitatetan aldatu ahal izango da baldin eta, aurkeztutako eskaerak baloratu eta haietako bakoitzari emango zaion dirulaguntza zehaztu ondoren, erabilgarri dagoen kredituak hartarako bide ematen badu.

4. Udaleko organo eskudunak deialdia ebatziko du eta ebazpena idatziz jakinaraziko zaie entitate edo gizabanako eskatzaileei, jakinarazpen idazkian kontu hauek zehaztuta:

- a) Dirulaguntza ematen ala ukatzen den.
- b) Diruz lagundutako programa, antolakundeen kasuan.
- c) Dirulaguntzaren zenbatekoa, onartutako kasuan.
- d) Ordaintzeko modua.
- e) Justifikatzeko epea.

5. Deialdia ebazteko erabakiak hiru hilabeteko epean hartu beharko dira gehienez ere, proiektuak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori igaro eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaerei ezezkoa eman zaiela esan nahiko du.

6. Honako deialdi honen aurka zein honen ondorioz sortutako administrazio egintza ororen aurka egin daiteke, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

7. Amurrioko Udalak beretzat gordetzen du berariaz diruz laguntzeko aurrekontuetan jaso den kopurua agortzeko edo ez agortzeko eskumena, baita deialdia esleitu gabe uzteko ahalmena ere, aurkeztutako programei buruzko txostenetan ondorioztatzen bada ez datozela bat deialdiaren xedeekin.

9. Ebazpenaren jakinarazpena

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena idatziz jakinaraziko zaie entitate eskatzaileei, eta deialdiaren modu berean eta ALHAOn argitaratuko da. Gizabanakoen eskaerak badira, interesdunari berari jakinaraziko zaizkio.

10. Onarpenaren ondoko protokoloa

Betiere, dirulaguntzak emateko ebazpena eman ondoren, irabazteko xederik gabeko antolakundeek kasuan, dirulaguntza jasotzen duen antolakundeak ezinbestean eta derrigorrez lankidetzara hitzarmena sinatu beharko du Amurrioko Udalarekin, hilabeteko epean. Bertan, gutxienez, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorra) 16. artikuluan adierazitako edukia ezarriko da, bai eta dirulaguntzaren xede zehatza, diruz lagunduko ekintzaren jarraipenerako baliabideen izaera eta aldizkakotasuna eta hark jasotzen dituen beste zehaztapen guztiak ere. Hitzarmena sinatzeak berekin dakar dirulaguntza jasotzen duen entitateak konpromiso hauek hartzea:

- a) Dirulaguntza ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, programa egitea edo jarduera gauzatzea.
- b) Amurrioko Udalarari frogatzea eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela, dirulaguntza emateko oinarri izan diren jarduera egin duela eta helburua bete duela.

c) Amurrioko Udalak egiten dituen ikuskatze lanak onartzea, baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza kontrolak ere, aurreko zeregin horietan eskatuko zaien informazio oro emanaz.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak lortu izanaren berri ematea Amurrioko Udalari. Dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide horien berri jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio, eta, nahitaez, jasotako funtsak nola erabili diren justifikatu baino lehen.

e) Ebazpen proposamena jakinarazi aurretik zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea.

f) Kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, onuradunari kasuan-kasuan aplikatu ahal zaion merkataritzako eta arloko legerian ezarritakoaren arabera, baita Amurrioko Udalak eskatzen dituen berariazko kontabilitateko egoera orri eta erregistroak izatea ere, egiaztapen eta kontrol ahalmenak egoki gauzatuko direla bermatzeko.

g) Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

h) Programaren finantzaketa publikoari publizitate egokia ematea, arauetan ezartzen den bezala.

i) Oinarri hauetako "dirulaguntza galtzeari" buruzko atalean sartzen diren kasuetan, jasotako funtsak itzultzea.

j) Amurrioko Udalarekin lankidetzan jardutea, bertan aribideko urtean egiten den sentsibilizazio ekintzaren batean, deialdiaren xedearekin zerikusia duten gaietan.

11. Dirulaguntzak ordaintzeko modua

Irabazteko xederik gabeko antolakundeei emandako dirulaguntzen kasuan, bi ordainketa egingo dira: lehenengoa, dirulaguntzaren ehuneko 50, lehen aipatutako hitzarmena sinatzen denean; bigarrena, beste erdia, programa osorik gauzatu dela egiaztatzen duen txostena aurkeztu eta gero.

Harrera-familiek berek sustatutako eskaerarako banakako dirulaguntzak ordainaldi bakar batean emango dira, dagokion erabakia eman ondoren.

12. Diruz lagundutako ekintzak justifikatzea eta horien jarraipena egitea

1. Dirulaguntza jasotzen duten entitateek programa gauzatu delako ziurtagiria aurkeztu behar dute Amurrioko Udalean programa amaitzen den egunetik hiru hilabete pasatu baino lehen, eta nahitaez azaroaren 30a baino lehen, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztu eta gero onartutako aurrekontuko kontzeptuei zorroztz lotuta, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera diruz lagundu daitezkeen gastuak kontuan hartuta, agiri hauekin:

a) Programa Amurrioko nola gauzatu den azaltzen duen memoria.

b) Memoria ekonomikoa, onuradunaren erantzukizunaren pean. Jatorrizko fakturak erantsi behar dira, emandako dirulaguntzaren guztizko zenbatekora arte; horiek bat etorri beharko dute aurretik egindako eskaerari jarraiki dirulaguntzaren helburuak eta jarduerak betetzeak sortutako gastuekin, eta ez dira justifikazio bezala onartuko beste helburu batzuk betetzeko egindako gastuak). Gainera, dirulaguntza jaso duen programaren diru sarreraren eta gastuen balantzea aurkeztu behar da (beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako laguntzen berri eman behar da).

c) Egiaztatzea Amurrioko Udalak harrera programarako dirulaguntza moduan emandako kopuruaren helburua Amurrioko harrera familiek bere gain hartu dituzten diruz laguntzeko moduko gastuak konpentsatzea izan dela.

2- Dirulaguntza jaso duen programaren benetako kostua aurrekontuan ezarritakoa baino txikiagoa izanez gero, udalak dirulaguntzaren zenbatekoa doituko du hura emateko kontuan hartutako irizpideak eta mugak aplikatuta. Irizpide horien arabera entitate onuradunak jasoko duen behin betiko kopurua finkatuko da edo, bestela, itzuli beharreko kopurua zehaztuko da, proportzionaltasunaren printzipioa aintzat hartuta. Dirulaguntza jasotzeko modukoak izan arren egin edo justifikatu ez diren gastuak deialdiko zortzigarren oinarriko bigarren idatz zatian xedatutakoaren arabera murriztutako dirulaguntzak konpentsatzeko erabil daitezke.

Harrera-familiek berek sustatutako banakako harrerarako dirulaguntzak badira, laguntzen inguruko frogagiriak deialdiaren urtearen barruan aurkeztu beharko dira, eta inoiz ere ez abenduaren 15a baino beranduago. Frogagiriaren artean, jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira, emandako dirulaguntzaren zenbateko osoraino, eta harrerarekin lotura duten joan-etorri edo izapideek sortutako gastuez gainera, erantsi ahal izango dira etxean hartutako adingabeen oinarriko beharrian jakin batzuk betetzeko direnak ere, honako hauek, besteak beste: jantziak, oinetakoak, osasun gastuak, aseguruak, eskolatzeari, jarduera osagarrietan parte hartzea, eta harreraren helburuarekin lotura duten beste batzuk.

Betiere, aplikatuko da azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorra) 44. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa.

13. Dirulaguntza galtzea

Antolakunde edo gizabanako onuradunek galdu ahal izango dituzte deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aurretiaz espedienteaz izapidetuta, baldin eta:

- (a) Datuak faltsutzen badira laguntza eskaeretan edo aurkeztutako agirietan.
- (b) Emandako dirulaguntza ez bada erabili aurkeztu eta onetsitako proiekturako edo arrazoi humanitarioengatik eskatutako banakako harreraren helbururako.
- (c) Banakako harreraren likidazioa edo frogagiriak aurkezteko epea amaituta, eta espresuki eskatu arren, haiek ez badira aurkezten.
- (d) Dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste dirulaguntza batzuekin batera, entitateak gauzatu beharreko diruz lagundutako jardueraren guztirako kostua baino handiagoa bada.
- (e) Oro har, ez bada betetzen oinarri hauetan, dirulaguntza emateko ebazpenean edo, hala dagokionean, udalarekin sinatutako hitzarmenean ezartzen diren betebeharretako edozein.

Dirulaguntza galtzeak ordura arte jasotako kopuruak transferentzia bidez Amurrioko Udalarari itzultzea ekarriko du, dirulaguntza ordaindu zen unetik itzulketa egin behar dela erabakitzen den arte diru horrek sortutako berandutze interesekin batera.

Jasotako dirulaguntzak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Dirulaguntzei buruzko Orokorren, 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako kasuetan itzuli beharko dira, bertan ezartzen den bezala.

14. Arau hausteak eta zehapenak

Deialdi honetatik eratorritako arau hauste eta zehapenen gaian, emandako dirulaguntzei dagokienez, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzenak, 52. artikulutik 69.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

15. Lege araubidea

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, aplikatuko da lege arau hauetan ezarritakoa: Amurrioko Udalak onartutako araudia, Toki korporazioen zerbitzuen Erregelamendua, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, eta aplikatzekoa den gainerako legeria.

16. Zabalkundea

Deialdi hau ALHAOn, Amurrioko Udalaren iragarki taulan eta Hauxe da aldizkarian argitaratuko da, ahalik eta gehien hedatzeko.

35. OINARRIA. BI URTEKOEN IKASGELEN ZERBITZUAREN DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEN BERARIAZKO ORDENANTZA

1. LEGE ETA EKONOMIA ESPARRUA

38/2003 Legeak (azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra) dirulaguntzak definitzen ditu, eta dio Administrazioak pertsona publikoei edo pribatuei egiten dizkien “diru entregak” direla, honako baldintza hauek betetzen direnean:

– Diru ematea onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.

– “Diru ematea lotuta egotea helburu bat lortzeko, proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat egiteko, portaera berezi bat izateko, izan horiek dagoeneko eginak edo izan gerora egitekoak, edo egoera bat gertatzeko; onuradunak ezarritako betebeharrak formal zein materialak bete beharko ditu.”

– Finantzaturiko proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburu izatea onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat edo xede publiko bat sustatzea.

38/2003 Legeak 9. artikuluan ezartzen duenez, dirulaguntzak eman aurretik, arauak onartu beharko dira, dirulaguntzak, hain zuzen, legeak ezarritako moduan emateko oinarriak ezartzen dituztenak.

Oinarri hauen xedea da bi urtekoen ikasgeletan matrikulatu diren ikasleei zuzendutako hezkuntza zerbitzua eskaintzen duten ikastetxeei laguntzak emateko esparrua arautzea, horren bitartez jarduera horrek Amurrioko udalerrian sor dezakeen defizitari aurre egiten laguntze aldera.

2. XEDEA ETA BALDINTZA OROKORRAK

2.1. Dirulaguntzaren xede izango dira Amurrioren, publikoak ez diren ikastetxeetako bi urtekoen ikasgeletan ematen diren hezkuntza zerbitzuak, betiere Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren ezagutza eta baimena badute.

2.2. Dirulaguntza hauen onuradunak diren ikastetxeek ezingo dute eskuratu behar baino finantzaketa gehiago, zerotik bi urtera bitarteko aldi eman daitezkeen dirulaguntza ezberdinen bitartez.

2.3. Bi urtekoen ikasgeletan bakarrik jarduten duten langileen kostuak dira aintzat hartuko direnak, eta hori ikastetxeko Zuzendaritzak egindako ziurtagiriaren eta kasuan kasuko gastu frogagirien bitartez egiaztatuko beharko da. Edonola ere, nominen zenbatekoak ezin izango dira sektorerako onetsitako urteko lan hitzarmenekoak baino txikiagoak izan, eta kopuru hori izango da kontzeptu horrengatik justifikatu beharreko gehieneko kopurua. Nominetako atzerapenak hainbanatu egingo dira, kasuan kasuko ikasturteko hilabeteak kontuan izanda.

2.4. Nominak eta/edo jatorrizko fakturak aurkeztearen bitartez egiaztatuko ezin diren gastuak ere ordenantza honen xedetik kanpo geratzen dira, adibidez hornidura gastuak edo amortizazioak. Halaber, ikastetxearen gastu orokorrak proportziozkoak izango dira, bi urtekoen ikasgela kopurua ikasgela kopuru osoarekiko den hein berean. Aurkeztutako nomina eta faktura guztiak xehatzea excel taula batean egingo da, kontzeptuka, zenbakituta eta dagozkien formulak aplikatuta (excel hori, paperean aurkezteaz gain, emailez bidali beharko da Hezkuntza Arlora, helbide honetara: bmendiguren@amurrio.eus). Faktura bakoitzaren ordainketaren froga-agiriak aurkeztu beharko dira, baita nominen ordainketari dagozkion TCak ere. Nominetan honako kontzeptuen zenbatekoak zehaztuko dira, hileka eta langileka ordenatuta: sortutakoa

guztira, kotizazio oinarri osoa, enpresako kotizazio tasaren ehunekoa, hobariak eta Gizarte Segurantzaren ABE prestazioa. Gastu eta diru sarrera aurreikuspenak dauzkan aurrekontua aurkeztu beharko da eskaerarekin batera. Dirulaguntzaren justifikazioa egitean, hasiera batean aurreikusitako zenbatekoak aintzat hartuta, gastuak gauzatzean desbideratzerik antzemango baltz, hasiera batean ematea erabakitako dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan murriztuko da.

2.5. Oinarri hauen ondotik datozen dirulaguntzen ordainketa jarraian adieraziko den moduan egingo da:

– Aurreko klausulan gehieneko kopuru bezala jarritako zenbatekoaren hiru laurden, organo eskudunak dirulaguntza ematea erabakitzerakoan.

– Gainerako zenbatekoa behin ikasturtea amaituta ordainduko da, betiere ikastetxeak honakoak aurkeztu ondoren: aurkeztutako aurrekontu osoaren justifikazioa, nomina eta jatorrizko fakturen bidez; aurrekontuaren likidazioa, eta 2.9. puntuan aipatutako ikasle zerrenda.

– Azken diru kopuru hori ez da inola ere ordainduko aurreko paragrafoan jasotako frogagiriak ez badira aurkezten udaletxean hamabost egun lehenago, agiriok aurkezteko azken eguna 2019ko irailaren 15a izanik. Data horretatik aurrera, ulertuko da indarrrik eta eraginik gabe geratu dela hartzaileen eskubidea eta, ondorioz, ez dutela jasoko ezarritako ordainketaren azkeneko laurdena, eta itzuli egin beharko dituztela ordura arte jasotako aurrerapenak.

2.6. Berariazko ordenantza honen iraunaldia urtebetekoa izango da, eta 2019-2020 ikasturteari baino ez dagokio.

2.7. Ikasleak hartzeko edo onartzeko oinarriak, kasuan kasuko eskaerari erantsiko zaizkionak, zorroztasun handienaz beteko dira.

2.8. Familia unitatea Amurrioko udalerrian erroldaturik ez duten ikasleak onartzekotan, udalaren dirulaguntzaren ehuneko 50ari murriztu beharreko ehunekoa murriztuko zaio, eta gainerako ehuneko 50a finkoa izango da beti. Familia unitatea da kide hauek dituen:

a) Eskatzailea, ezkontidea –bananduta edo dibortziatuta ez badago (halakoetan nahikoa izango da ikastetxeak egindako ziurtagiria aurkeztea)–, edo ohiko bizikide duen izatezko bikotekidea, baldin eta behar bezala egiaztatzen bada.

b) Etxebizitza berean bizi diren seme-alabak, zeinen zaintza eta babespena duten.

2.9. Aurreko klausula eraginkor bihurtu ahal izateko, eta Amurrioko Udalak ordaindu beharreko kopuruak likidatzea lortze aldera, ikasturtean zehar ikastetxera bertaratutako ikasleen zerrenda emango zaio udalari, dirulaguntza likidatzeko behar den agiri multzoarekin batera –jatorrizko fakturak eta nominak, aurrekontuan jasotako kopuru osoaren bezainbatekoak, eta adierazitako ikasgelako gastuen eta diru sarreraren balantzea-. Zerrenda horretan, ikaslearen helbidea eta ikastetxera denboraldi osoan edo partzialean joan den adieraziko da, eta familia liburuaren kopia osoa ere erantsiko da. Halaber, matrikulen bidez eta erakunde publiko eta pribatu ezberdinetatik, zero, bat eta bi urtekoen ikasgeletarako hurrenez hurren, eskuratutako dirulaguntzen bidez lortu diren diru sarreraren zerrenda xehatuko da. Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzarik ematea erabakiz gero, dirulaguntza horren ebazpenaren kopia bat erantsi beharko da.

2.10. Udalak edozein motatako argibideak eskatu ahalko ditu une oro, emandako dirulaguntza justifikatzeari dagokionez. Halaber, beren-beregi ohartarazten da gezurra den edozein agiri aurkeztea emandako dirulaguntza baliogabetzeko arrazoia izango dela eta laguntzaren onuradun den erakundeak indarrean dagoen urtean emandako zenbatekoak itzuli beharko dituela.

Amurrioko Udalak datuak faltsutu edo ezkutatu izanaren arrastoak igartzen baditu, kanpoko auditoretza enpresa baten zerbitzuak kontratatu ahalko ditu eta horren kostua, txosten horretan bildutako ondorioen arabera, dirulaguntzaren onuradun den erakundeari egotzi ahalko zaizkio.

2.11. Ordenantza hau gauzatzetik eratorritako edozein gai ebazteko eskudun diren epaitegiak Amurrioko Udalarari dagozkionak izango dira, eta, zehazkiago esatearren, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien sala.

3. IKASTETXE ONURADUNEN DEFINIZIOA, ESKAERA AURKEZTEKO EPEA ETA DIRUZ LAGUNDUKO DEN GEHIENEO ZENBATEKOA

3.1. Dirulaguntza hauen onuradun izan ahalko dira Eusko Jaurlaritzak homologatutako eta itundutako ikastetxe pribatu guztiak, baldin eta Amurrioko udalerrian badaude eta bi urtekoen ikasgelen zerbitzua ematen badute.

Goian adierazitako ikastetxe bakoitzeko legezko ordezkariak Amurrioko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu ahalko du dirulaguntza eskaera, baldin eta aurreko dirulaguntzak justifikatzeko agiri multzo guztia aurkeztu bada eta haiek likidatuzat jotzen badira. Horretarako hilabete izango du deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, emandako dirulaguntzaren justifikazioarekin loturiko agiri guztiak 2020ko irailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira.

3.1. 2020. urtean esleitzeko den gehieneko kopurua 51.000 euro da, eta 32601.481 partidatik hartzen du bere zuzkidura.

4. BI URTEKOEN IKASGELEN ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIK EMANGO DEN DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

4.1. Amurrioko Udalak hurrengo irizpideak jarraituko ditu, bi urtekoen ikasgelen hezkuntza zerbitzua eskaintzen duten ikastetxeei diruz lagundu beharreko zenbatekoa zehazteko.

4.1.1. Funtzionamenduan dagoen ikasgela kopurua.

Funtzionamenduan dagoen bi urtekoen ikasgela (lerroa) bakoitzeko, 8 puntu.

4.1.2. Ikasle kopurua.

Matrikulatutako ikasle bakoitzeko, 1 puntu.

4.1.3. Irakasleen maila:

a) Irakasle titularra (Haur Hezkuntzako diplomaduna): 50 puntu.

b) Hezitzailea: 15 puntu.

c) Hezitzaile laguntzailea: 10 puntu.

Puntuazio horiek lanaldi osoari dagozkio. Lanaldiak osoak ez badira, puntuazioak proportzioan murriztuko dira.

4.1.4. Ikastetxearen ezaugarriak eta irakasleen euskara maila:

• “Onura publikoko entitate” modura kalifikatutako ikastetxea gehi EGA duten irakasleak: 100 puntu.

• “Onura publikoko entitate” modura kalifikatutako ikastetxea: 75 puntu.

• Kooperatiba itundua gehi EGA duten irakasleak: 75 puntu.

• Kooperatiba itundua: 50 puntu.

• Ikastetxe pribatu itundua gehi EGA duten irakasleak: 50 puntu.

• Ikastetxe pribatu itundua: 25 puntu.

• Ikastetxe pribatua gehi EGA duten irakasleak: 25 puntu.

• Ikastetxe pribatua: 0 puntu.

Ikastetxe bakoitzari esleituko zaion zenbatekoa lortzeko, eskatzaile guztiek eskuratutako puntuazio osoa aintzat hartuta ikastetxe bakoitzari dagokion parte hartze portzentajeari erreparatuko zaio, eta hura 3.3 klausulan adierazitako zenbatekoari aplikatuko zaio.

5. LAGUNTZAK IZAPIDETZEA

5.1. Hezkuntza Arloak izapidetuko ditu oinarri hauen bidez araututako dirulaguntza eskaerak, eta organo eskudunari proposatuko dio onartzeko, hala badagokio.

5.2. Amurrioko Udalak iragarki taulan iragarkia jarrita jakinaraziko du zer dirulaguntza eman dituen.

36. OINARRIA. SEME-ALABAK JAIOTZA ETA ADOPTATZEAGATIK LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Amurrioko Udalak 2019an seme-alaben jaiotza edo adopzioagatik laguntzak emateko oinarriak arautzea erabaki du, jaiotza berriei gizarte babes handiagoa emateko eta babes hori osatzeko, jaiotzak sustatzearen; horretarako, 2020ko aurrekontuan partida bat gaitu du, 10.000,00 eurokoa.

1. Lege eta ekonomia esparrua

38/2003 Legeak (azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra) dirulaguntzak definitzen ditu, eta dio Administrazioak pertsona publikoei edo pribatuei egiten dizkien "diru entregak" direla, honako baldintza hauek betetzen direnean:

– Diru entrega gauzatzea onuradun diren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik egin gabe.

– Halako helburua lortzeko, halako proiektua gauzatzeko, halako ekintza egiteko, halako jarrera izateko edo halako egoera gertatzeko lotuta ematea dirua. Horako horiek eginda edo egiteko egon daitezke, eta onuradunak zehaztutako betebeharrak formal zein materialak bete beharko ditu.

– Finantzuriko proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburu izatea onura publikoko edo interes sozialeko jardueraren bat edo xede publiko bat sustatzea.

38/2003 Legearen 9. artikulua ezartzen duenez, dirulaguntzak eman aurretik, legeak ezartzen duen bezala onartu beharko dira dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituzten arauak.

Oinarri hauen xedea da seme-alaben jaiotza edo adopzioagatik laguntzak emateko oinarriak arautzea, jaiotza berriei gizarte babes handiagoa emateko eta babes hori osatzeko, jaiotzak sustatzearen.

2. Betekizun eta baldintza orokorrak

2.1. Oinarri hauen bidez, dirulaguntzak emango dira 2019an jaiotako edota adoptatutako seme-alabengatik.

"2.2. Laguntzaren onuradun izango den pertsona Amurrioko erroldatuta egon beharko da bost urte azkeneko hamar urteetan; eta horietatik batean, gutxienez, modu jarraituan eta dirulaguntzaren xede den jardueraren egin aurretik."

2.3. Familia unitatearen urteko diru sarrerak ezingo dira izan 20.000,00 eurotik gorakoak. Laguntzak eman ondoren aurrekontu partidan kreditu erabilgarria egonez gero, eta kasu horretan soilik, eman ahalko zaie laguntza urteko 20.000,00 eta 25.000,00 euro arteko diru sarrerak dituzten familiei. Diru sarreraren bigarren tarte horretan dauden familiei emango zaizkien banan-banako gehieneko zenbatekoak ehuneko jakin batean gutxitu ahal izango dira, hain zuzen ere, diru sarreraren lehenengo tarteari dagozkion laguntzak balioetsi eta eman ondoren erabilgarri dagoen aurrekontu esleipenarekin ordaindu ahal izateko beharrezko ehunekoan.

2.4. Laguntzaren onuradun izateko, nahitaezkoa izango da eskatzailearen familia unitate osoa Amurrion errolatuta egotea seme-alaba jaio edo adoptatzen den unean. Gainera, eskaera aurkezten den unean ere baldintza hori bete beharko da.

3. Onuradunaren eta familia unitatearen definizioa

– Familia unitatetzat joko da seme-alabaren jaiotza edo adopzioaren unean eratuta dagoen hori.

3.1 Hauexek osatuta ulertuko da familia unitatea:

– Eskatzailea, ezkontidea –bananduta edo dibortziatuta ez badago–, edo ohiko bizikide duen izateko bikotekidea, baldin eta behar bezala egiaztatzen bada.

– Etxebizitza berean bizi diren seme-alabak, zeinen zaintza eta babespena duten.

3.2 Familia unitatearen kide den aita edo ama izan daiteke laguntza honen onuradun. Laguntzaren onuradun pertsona bakarra denez gero, umeen zaintza eta babespena hainbat pertsonaren artean partekatuta badago, seme-alaba jaio berria edo adoptatua etxebizitzan errolatua duen aitak edo amak eska dezake laguntza, salbu eta kontrarako akordiorik badago aldean artean.

4. Seme-alabak jaiotzeagatiko/adoptatzeagatiko laguntzaren zenbatekoa

4.1. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa familia unitatearen urteko diru sarreraren arabera kalkulatu da:

FAMILIA UNITATEAREN URTEKO DIRU SARRERAK	JASOKO DEN KOPURUA
20.000 euro, gehienez	1.000 euro

4.2 Familia unitatearen urteko diru sarrerak kalkulatzeko hauxe hartuko da kontuan: zerga oinarria ken Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan xedatutako konpentsazio pentsioengatik eta urteko mantenuagatik 2019ko ekitaldian izandako murrizketa.

4.3 Amurrioko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira eskaera eta agiriak, deialdiak jasotako datetan.

4.4. Agiri hauek aurkeztu behar ditu onuradunak:

– Familia liburuaren fotokopia.

– Eskatzailearen eta ezkontide edo ohiko bikotekidearen NANA, AIZ edo pasaporte, baliogabean dagoena. Europar Batasuneko atzerritarrak baldin badira, Batasuneko herritarren erregistroaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

– Haur bat adoptatuz gero, ebazpen judizialaren fotokopia edo adopzioa egin dela jasotzen duen antzeko agiriren bat.

– Ezkontza baliogabetu bada edo banantze judiziala edo dibortzioa gertatuz gero, ebazpen judizialaren fotokopia, dirulaguntzaren xede diren seme-alaben zaintza eta babespena esleitzen duena.

– Hirugarrenaren alta inprimakia, finantza erakundeak arauz adostua.

– 2019ko ekitaldiko PFEZaren aitorenak, edo aita-amak edo adoptatzen duenak eta bere ezkontide edo ohiko bikotekideak PFEZa aurkezteko betebeharririk ez dutela egiaztatzen duen agiria.

4.5. Epe barruan aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, diruz laguntzeko kopuruek guztira gaintzen badute dirulaguntza horiek emateko dagoen aurrekontu esleipena, bana-banako

gehieneko zenbatekoak behar besteko ehunekoan murriztuko dira, aipatutako aurrekontu esleipenarekin haiek estali ahal izateko.

5. Laguntzak izapidetzea.

5.1. Gizarte ongizaterako udal sailak izapidetuko ditu oinarri hauen bidez araututako dirulaguntzen eskaerak, eta organo eskudunari proposatuko dio, hala badagokio, horiek onartzeko.

37. OINARRIA. AMURRIOKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

1. Lehiaketa honek Amurrioko 2020ko jaietako kartel ofiziala aukeratzea du helburu.

2. Kartelaren neurriak hauek izango dira: hirurogeita hamar zentimetro luze eta berrogeita hamar zabal. Euskarri zurrun baten gainean aurkeztuko da. Formatu bertikala izango du eta egoki paketatuta aurkeztuko da.

3. Amurrioko armarría eta honako testu hau eraman beharko ditu: "Amurrioko Jaiak 2020. Abuztuaren 12tik 17ra". Euskarazko eta gaztelaniazko beste testu hau hautazkoa izango da: "Andra Mari eta Done Errokeren ohorez. En honor de Ntra. Sra. y San Roque".

4. Sari bakarra egongo da, 800 eurokoa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua onesten duen Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, pertsona fisikoak jaso eta 300 euro baino gehiagoko sarien atxikipen oinarria PFEZaren ehuneko 19 izango da.

5. Egileek, gehienez, bina lan aurkeztu ahal izango dituzte. Lanak originalak eta aldeztatik argitaragabeak izango dira. Zernahi teknika erabil daiteke. Ezingo da aldeztatik aurkeztutako lanik aurkeztu.

6. Lanak aurkezteko epea 2020ko martxoaren 30etik apirilaren 10era arte izango da. Lanak Amurrioko Kultura Etxean aurkeztu beharko dira (Landako kalea, 8. 01470).

7. Kartelek ez dute identifikaziorik izango. Atzeko aldean idatzitako goiburu bat baino ez. Kartelarekin batera gutun-azal itxia aurkeztuko da eta haren kanpoko aldean kartelaren goiburu bera. Barruan, egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.

8. Lehiaketara aurkeztutako lanak galdu edo kalterik badute, antolatzaileek ez dute ardurarik izango. lehiatzaileak ordainduko ditu lanek eragiten dituzten bidalketa eta itzulketa gastuak.

9. Lehiaketa ebatzi zenetik hogeita hamar egun baliadun igarota aukeratu ez diren lanak jaso ez badira, esan nahiko du uko egiten zaiela eta Amurrioko Udalak haiekin nahi duena egiteko eskumena izango du eta ez du inongo erreklamaziorik edo kalte-ordainik ordaindu beharrik onartuko.

10. Amurrioko Udalak Amurrioko jaien kartelean hiribilduko armarría jartzeko eskubidea izango du, bai eta jatorrizkoan ageri dena aldatu edo ordezkatzekoa eta kartel sarituaren behin betiko antolaketan haren lekua aldatzekoa ere. Era berean, kartel irabazlearen egilea behartuta dago, aparteko ordainketarik gabe, epaimahaia helburua hobeto lortzeko beharrezko ikusten duen zernahi xehetasun edo kolore aldatzera.

11. Diseinuaren eta artearen munduan aditu diren hiru pertsonak osatuko dute epaimahaia. Haren erabakia apelaezina da.

12. Sariak 2020ko maiatzaren 15ean banatuko dira, 19:00etan, Bañueta udal kiroldegiko atarian. Egun horretan bertan inauguratuko da hautatutako lanen erakusketa. Lan horiek ekainaren 5era arte egongo dira ikusgai.

13. Euskarri informatikoan emango zaie lan sarituan antolatzaileei eta aurrerantzean Amurrioko Udalarena izango da.

14. Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 18. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, udal web orrian aurkeztuko da sarituen zerrenda.

15. Epaimahaiaren epaia Amurrioko Udalaren web orrian jakinaraziko da, bai eta ere idatziz sarituei.

38. OINARRIA. LANGABETU GAZTEENTZAKO PRESTAKUNTZA BEKEN UDAL PROGRAMA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Amurrioko Udalak, gazteen enplegua eta gazte tituludunak enpresekin duten lotura sustatzeko helburuarekin, praktiken bidezko prestakuntza programa bat jarri du abian. "Programa honek laguntza ekonomiko batzuk ditu esleitura bertan parte hartzen duten gazteentzat; beraz, Amurrioko Udalak honako ordenantza hau onartu behar du, eta arautuko duten oinarriak honako hauek izango dira:"

1. Xedea eta aplikazio eremua. oinarri hauen helburua da baldintzak arautzea Amurrioren bizi diren langabetu gazteei 12 prestakuntza-beka emateko, enpresetan zerbitzuak eman edo tutore baten laguntzarekin bideragarritasun plan bat egin dezaten. Beka dirulaguntza bat izango da, ez itzultzekoa.

2. Beken zuzkidura eta iraupena: herritik kanpoko enpresetan praktikak egiten edo tutore baten laguntzarekin bideragarritasun-plan bat egiten bekadunentzat, bekaren zuzkidura zortziehun euro gordinetara izango da hilean, horren barruan dagoela urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretua aplikatuta sortzen diren Gizarte Segurantzako gastuen zenbateko osoa, bai eta kasuan kasuko PFEZren atxikipena.

Lantokia Amurrioren enpresetan praktikak egiten dituzten bekadunen kasuan, zenbatekoa seiehun euro gordin izango da hilean, horien barruan sartzen direlarik Gizarte Segurantzako gastuak eta PFEZren atxikipenak.

Enpresetan praktikak egin ahal izateko, beharrezkoa da praktika-hitzarmen baten pean jartzea, zeina araututa baitago xedapen honetan: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren instrukzioa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako prestakuntza programetan parte hartzen duten langabetuentzat enpresetako lanez bestelako praktika bekadunak kudeatzeko, jarraipena egiteko, kontrolatzeko eta ebaluatzeko, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuaren esparruan. Instrukzio horretan, arautzen dira pertsonak praktiketan hartzen dituzten enpresen eginbeharrak. Horien artean, ageri da gutxienez une bakoitzean indarrean dagoen hileroko IPREMaren ehuneko 80 ordaintzeko beharra. 2019rako, 537,84 euro zen hileroko.

Amurrioko Udalak programa hau burutu eta finantzatzeko duen interesarengatik, bekaren zenbatekoa enpresei ordaindu beharko zaie, haiek bekadunei ordaindu diezazkieten hileroko dagozkien kopuruak, aurretiaz agiri hauek aurkeztuta: IFZ, hirugarrenen alta eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga eginbeharrak betetzen egunean daudela egiaztatzen duten agiriak.

Bekaren iraupena lau hilabetekoa izango da, eta 2020ko abenduaren 1etik 2021eko ekainaren 30era bitartean egingo da.

Bekaren esleipendunak 30 orduko dedikazioa izango du astean, enpresen beharren eta udalak zehaztutako ildoan arabera banatuta.

Bekadunak praktikak egingo dituen enpresaren edo enpresen beharrek hala eskatzen badute, bekadunek 4 hilabete baino gutxiago igaroko dute enpresan eta astean 30 orduko dedikazioa izango dute, baldin eta guztira, gutxienez, 480 ordu lan egiten badute.

3. Onuradunen betekizunak: deialdi honetako bekak lehiaketa bidez emango zaizkie eskatzen duten pertsonari, baldin eta eskakizun hauek betetzen badituzte eskaera aurkezteko epea amaitu baino lehen eta agiri bidez egiaztatzen badituzte:

- a) Amurrioko udalerrian erroldatuta egotea.
- b) ikasketa hauek amaituta izatea: lizentziatura edo graduako unibertsitate ikasketak, diplomatura edo goi-mailako heziketa-zikloa.
- c) ez izatea helburu bera edo antzeko helburua duen beste beka edo laguntza bat.
- d) Bekaz gozatzen den aldian ez egitea lan jarduera ordaindurik.
- e) Amurrioko Udalaren toki garapenerako sozietateak –Amurrio Bidean- antolatutako eta Europako Gizarte Funtsak diruz lagundutako Hazilan prestakuntza ekintzan parte hartzen egotea edo parte hartu izatea, beka hauen deialdian adierazten den urtean.
- f) 1976ko urtarrilaren 1a baino beranduago jaioa izatea.

4. Eskaerak aurkeztea: Amurrioko udal erregistro orokorrean (Juan Urrutia plaza, zk.g.) aurkeztu behar dira eskaerak eta arauzko agiriak. Aplikagarri izango da urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, xedatutakoa.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 10 egun geroago bukatuko.

Eskaerak oinarri hauetako I. eranskinean datorren eskaera eredian aurkeztuko dira. Eskararekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) NANaren fotokopia edo egiaztagiri baliokidea.
- b) Errolda ziurtagiri edo orria.
- c) Lizentziatura edo gradua, diplomatura edo prestakuntza zikloa egin izana egiaztatzen duen agiria
- d) Amurrioko Udalaren toki garapenerako sozietateak –Amurrio Bidean- antolatutako Hazilan prestakuntza ekintzan parte hartzen egotea edo parte hartu izatea, beka hauen deialdian jasotzen den urtean.
- e) Erantzukizunpeko aitortpena, Dirulaguntzei buruzko lege orokorraren 13 artikuluan pertsona onuraduna izatea eragozten duten inguruabarretan ez dagoela adierazten duena. II. eranskinean jasotako eredia erabiliko da.

f) Balioetsi litezkeen meritua egiaztatzen dituzten agirien kopia erkatua.

g) Lanbidek egindako ziurtagiria, izena emanda egon den aldiei buruzkoa eta, era berean, lan egoera adierazten duena.

Interesa dutenek eskaera aurkezteak berekin dakar oinarri hauen edukia onartzea.

5. Eskaerak balioestea: eskaerarekin batera egiaztatu diren meritua baino ez dira balioetsiko. Hona deialdi honetan balioetsiko diren meritua:

a) Amurrioko erroldatuta egotea, gutxienez 6 hilabetez: 10 puntu.

b) Titulazioa: (gehienez 2 puntu).

2 puntu emango zaizkio honako tituluen lizentzia edo gradua duen izangaiari: zuzenbidea, enpresa zientziak, ekonomia zientziak, ingeniariaritzak, arte ederrak, marketina, arkitektura, gizarte eta komunikazio zientziak, psikologia.

Gainerako gradu, diplomatura eta lizentziei puntu 1 emango zaie.

Goi-mailako prestakuntza zikloak 0,5 puntu izango dute.

c) Adina (gehienez 2 puntu).

1990ko urtarrilaren 1a baino beranduago jaioak: 2 puntu.

1990ko urtarrilaren 1a baino lehen jaiok: puntu bat.

d) Beste merezimendu batzuk (gehienez 6 puntu).

500 ordutik gorako masterrak edo ikastaroak: 2 puntu.

Beste ikastaro batzuk (orduen batura: 0.004 puntu/ordu): gehienez 2 puntu.

EGA: 2 puntu.

Beste hizkuntza batzuk (ingelesa, frantsesa, alemaniera): (gehienez, 2 puntu).

First edo baliokidea: 0,5 puntu.

Advance edo baliokidea: puntu 1.

Gidatzeko baimena: 0,5 puntu.

Puntuen berdinketa egonez gero, lehentasuna izango du ondorengo ataletan puntuazio hoberena lortu duenak: lehenik, b atalean; bigarrenik, c atalean. Oraindik ere berdinketa egonez gero, zozketa bidez ebatziko da.

6. Bekaren balioespen batzordea, beka ematea eta jarraipena egitea: beka eskuratu nahi duten izangaiak balioesteko, balioespen batzorde bat eratuko da, aurkeztutako eskaerak azterteaz eta balioesteaz arduratzeko. Batzorde hori Ekonomia Sustapenerako Saileko teknikariak, Amurrioko toki garapenerako sozietateko –Amurrio Bidean- teknikariak eta Amurrio Bidean sozietateko enpresei laguntzeko teknikariak osatuko dute.

Balioespen batzordeak eskumena izango du, bere kideen bidez, adierazitako meritua hobeto kalifikatzeko beharrezko irizitako nahi adina egiaztapen egiteko, bai eta egindako hautaketa prozesuaren ondorioz izan diren gorabeherak ebazteko ere.

Ekonomia Sustapenerako teknikariak, aurrekontu esleipenari eta aurretiazko fiskalizazioari buruzko txostenaren ondoren, beka emateko edo ukatzeko proposamena egingo dio, aukeraketa eta jarraipen batzordearen txostenean oinarritua, Tokiko Gobernu Batzarrari.

7. Bekadunen eskubideak eta betebeharrak.

1. Beka hori ez da bateragarria Espainiako edo Europar Erkidegoko funts publiko edo pribatuekin finantzatuta dauden helburu bereko edo antzeko beste beka edo laguntza batzuekin.

2. Bekaduna izateak ez du inoiz sortuko lan edo administrazi harremanik Amurrioko Udala-rekin, ezta bekadunak praktikak egiten dituen enpresekin ere.

3. Bekaren onduradunak betebeharrak hauek izango ditu:

a. Gutxienez Hazilan prestakuntza ekintzaren gutzirako ordu kopuruaren ehuneko 80tan parte hartzea.

b. Adierazten zaizkion egunean hastea esleitutako enpresan edo enpresaren bideragarritasun planean.

c. Programan zehaztutako jarduerak egin eta helburuak betetzea.

d. Jardueren memoria egitea.

4. Ukorik edo bajarik izanez gero, Amurrioko Udalak beste eskatzaile batzuei esleituko die, hautaketa prozesuan lortutako hurrenkerari jarraituz. Bekaz hilabete natural baino gutxiagoan gozaten bada, onduradunak emandako denboraren arabera diru kopurua jasoko du.

8. Aurrekontu erabilgarritasuna: deialdi honetako dirulaguntzak 20.1.20.1.241.16.480 partidatik ("Prestakuntza beka" izenekoa) finantzatuko dira.

9. Laguntzen ordainketa: laguntza ekonomikoa lau ordainalditan emango da, prestakuntza praktikak edo bideragarritasun plan tutoredunak irauten duten hilabeteetan.

10. Laguntzak Itzultzea: dirulaguntza eman zuen organoak izango du eskumena espedientea hasi eta, hala iritziz gero, onuradunak dirua itzuli behar duela ebazteko. Prozedura ofizioz edo organo eskudunak edo interesdunak berak eskatuta hasi ahal izango da. "Horren inguruko ebazpena hartu ondoren, udalak laguntzaren onuradunari jakinaraziko dio dirua itzultzeko prozedura hasi dela, bai eta hartarako arrazoiaren zergatia ere; eta hamabost egun emango zaizkio bidezko deritzen alegazioak egin eta egoki jotzen dituen agiriak eta zuribideak aurkezteko."

Alegazioak jasotakoan edo hartarako emandako epea alegaziorik gabe igarotakoan, ebazpen arrazoitua emango da. Ebatzitakoaren aurka zer errekurso aurkeztea duen ere jakinaraziko zaio ebazpen horretan. Hamabi hilabete izango dira, gehienez, dirua itzultzeko prozedura ebazteko. Ebazpenak baldintzak ez direla bete ebazten bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidearen galera ekarriko du, bai eta, ondorioz, bidegabe jasotako zenbatekoak udal diruzaintzara itzultzeko beharra ere. Horretarako, bi hilabete izango dira jakinarazpena jasotzen denetik aurrera. Epe horretan ordainduz gero, borondatezko epean ordaindu dela iritziko da. Epe horretan ordaintzen ez bada, premiamendu prozedura abiatuko da, aplikagarri den araudiarekin bat etorritik. Dirua itzultzeko prozedura administrazio arau hauste baten ondorio bada, organo eskudunari jakinaraziko zaio, aplikagarri den zehapen prozedura abia dezan.

11. Araubide osagarria: oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, eta haren garapen araudia, eta urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena, aplikatuko dira.

12. Indarrean jartzea: Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

I. eranskina: Prestakuntza bekaren eskaera

.....jaunak/andreak, adinez nagusia eta(e) ko herritarra denak (helbidea:posta kodea,kalea,zenbakia,solairua), etatelefono zenbakia eta NAN zenbakia dituenak,

Adierazten du

Badakiela udal honek deialdia egin duela 12 prestakuntza beka emateko Amurrion bizi diren langabetu gazteei, eta, oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela iritzita, beka horiek esleitzeko hautaketa prozesuan parte hartu nahi duela. Horrenbestez, honako agiri hauek eranstean ditu:

- a) NANaren fotokopia edo egiaztatari baliokidea.
 - b) Errolda ziurtagiri edo orria.
 - c) Lizentziatura edo gradua, diplomatura edo goi mailako prestakuntza zikloa egin izana egiaztatzen duen agiria.
 - d) Beka hauen deialdiko urtean Amurrio Bidean-ek antolatutako Hazilan prestakuntza ekin-tzan parte hartzen egotearen edo parte hartu izanaren ziurtagiria, erakunde horrek emana.
 - e) Erantzukizunpeko aitortpena, Dirulaguntzei buruzko lege orokorraren 13. artikuluan pertsona onuraduna izatea eragozten duten inguruabarretan ez dagoela adierazten duena. II. eranskinean jasotako eredia erabiliko da.
 - f) Balioetsi litezkeen merituak egiaztatzen dituzten agirien kopia.
 - g) Lanbidek egindako ziurtagiria, izena emanda egon den aldiei buruzkoa eta, era berean, lan egoera adierazten duena.
- Horregatik guztiagatik, eskatzen du beka eman diezaiotela,.....zenbakiko ALHAOn, 2020ko.....(a) ren.....(e) koan, argitaratutako oinarrien arabera.
- Amurrion, 2020ko.....ren.....(e)(a) n.

II. eranskina. Erantzukizunpeko aitopena, Dirulaguntzei buruzko lege orokorraren 13 artikuluan pertsona onuraduna izatea eragozten duten inguruabarretan ez dagoela adierazten duena

Nik,jaunak/andreak, adinez nagusia eta(e) ko herritarra naizenak (helbidea:posta kodea,kalea,zenbakia,solairua), etatelefono zenbakia eta NAN zenbakia dituenak,

Erantzukizunez adierazten dut ez nagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorraren 13.2 artikuluan pertsona onuraduna izatea eragozten duten inguruabarretan.

Eta hala adierazten dut Amurrion bizi diren langabetu gazteei zuzendutako prestakuntza beken adjudikaziodunak hautatzeko espedientearen ondorioetarako, 2020ko(a) ren(e) ko BOTHAn (.....zk.) argitaratu denaren arabera.

Amurrion, 2020ko.....ren.....(e)(a) n.

Sin.:

**39. OINARRIA. AMURRIO HIRIBILDUKO ARGAZKI
LEHIAKETA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

GAIA: bi modalitate:

Gai libreko hiru argazkiren bilduma.

Amurriori eta hango giza paisaiari buruzko hiru argazkiren bilduma.

AMURRIOKO UDALERRIARI BURUZKO ARGAZKI BILDUMAREN XEDEA: Lehiaketaren helburua da, argazkien bidez, Amurrioko gizarte errealitatea erakustea, Amurrioko biztanleena eta gizarte jarduerarena.

LANAK: Gehienez ere, parte hartzaile bakoitzak aurrez saritu gabeko bi bilduma aurkeztu ahal izango ditu modalitate bakoitzeko. Dena den, modalitate bakoitzean bilduma batek bakarrik jaso ahal izango du saria. Epaimahaiak bildumaren koherentzia baloratuko du. Edozein teknika edo prozedura onartuko da, digitala edo laborategikoa, kolorean edo zuri-beltzean.

Argazki bakoitza jpg. formatuan aurkeztu beharko da, eta 72 ppi-ko bereizmena izan beharko du. Obra hautatu daitekeela aurreikusita, parte hartzailearen ardura izango da argazkiaren kopia bat edukitzea, bereizmen egokikoa, oinarri hauetan zehazten den neurrietan inprimatzeko.

LANAK ENTREGATZEA: Lehiaketan izena emateko eskabidea helbide honetan dago: www.amurrio.org/es/concursofotografico.

AURKEZTEKO EPEA: 2020ko martxoaren 1etik 20ra.

LAN HAUTATUAK: Jasotzen diren lan guztien artean, epaimahaiak saritutakoak hautatuko ditu, bai eta, haren iritziz, erakusteko modukoak direnak ere. Horretarako, egileei eskatuko die paperean aurkez ditzatela lan horiek.

Hautatutako lanen egileek lanak paperean bidali beharko dituzte, 2 milimetroko lodiera duen "passepartout" gainean, 40x50 cm-ko neurrian, eta markoan bertikalean jarrita. Argazkia ezin izango da "passepartout" a baino handiagoa izan, baina formatu eta neurri libreak izango ditu.

Lanak gasturik gabe eta behar bezala bilduta bidaliko dira. Paketearen kanpoaldean xedea eta gaia agertu beharko dira: "Amurrioko Hiribilduko argazki lehiaketa"; "Gai libre" edo "Amurrio". Eta helbide honetara bidaliko dira: Kultur Etxea, Landako kalea 8, 01470 Amurrio, Araba.

Parte-hartzaileek bere gain hartuko dute argazkiek bidalketan galtzeko edo narriatzeko duten arriskua.

EPAIMAHAIA: Argazkilaritzan adituak diren hiru pertsonak osatuko dute epaimahaia. Horien lana izango da ikusgai jarriko diren lanak hautatzea eta sariak banatzea. Epaiarekin batera jakinaraziko da nor diren epaimahaiko kideak.

SARIAK:

- 1. saria gai libreko 3 argazkiko bildumari: 400 euro eta garaikurra.
- 2. saria gai libreko 3 argazkiko bildumari: 200 euro eta garaikurra.
- 1. saria Amurrio gai duen 3 argazkiko bildumari: 800 euro eta garaikurra.
- 2. saria Amurrio gai duen 3 argazkiko bildumari: 200 euro eta garaikurra.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua onesten duen Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, pertsona fisikoak jaso eta 300 euro baino gehiagoko sarien atxikipen oinarria PFEZaren ehuneko 19 izango da.

Saritutako lanak bereizmen handiko euskarri informatikoan eta paperean eman beharko zaizkie antolatzaileei.

Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 18. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, udal web orrian aurkeztuko da sarituen zerrenda.

SARI BANAKETA ETA ERAKUSKETA: Sariak 2020ko ekainaren 5ean banatuko dira “La Casona” erakusketa aretoan, arratsaldeko 20:00etan. Egun horretan bertan inauguratuko da lan hautatuen erakusketa. Lan horiek 2020ko ekainaren 26ra arte egongo dira ikusgai.

LANAK ZAINTZIA ETA ITZULTZEA: Saririk jaso ez duten lanak Amurrioko Kultur Etxean jaso ahal izango dira 2020ko irailaren 25era arte. Egun horretatik aurrera, jaso ez diren lanak Amurrioko Udalaren esku geratuko dira. Bere lana postaz itzultzea nahi duenak, berariaz adierazi beharko du, eta itzulketa gastuak bere gain hartu beharko ditu (jasotzean ordaintzeko bidalketa).

Lanak behar bezala zainduko dira, baina antolatzaileek uko egingo diote erantzukizun orori haiekin zerikusirik ez duen arrazoiengatik kalteren bat gertatuko balitz.

ESKUBIDEAK: Parte hartzaileak egile eskubideen titular bakarrak izango dira, eta bermatu beharko dute beste inork ezingo duela erreklamatu lehiaketara aurkeztutako argazkien gaineko inolako eskubiderik.

Hirugarren pertsonen gainean irudi eskubideengatik edo irudia txarto erabiltzeagatik sor litekeen erantzukizuna egilearena izango da bakar-bakarrik, eta Udalak ez du hori konpontzeko beharrik izango.

Saritutako lanen egileek Amurrioko Udalari emango dizkiote erreproduzio eskubideak.

AZKEN ARAUAK: Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek osotero onartzea. Oinarrietan jasota ez dauden beste egoera guztiak antolatzaileek interpretatu eta ebatziko dituzte. Sariak eman gabe gelditu daitezke.

40. OINARRIA. AMURRIO HIRIBILDUKO ARTE LEHIAKETA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. PARTE HARTZEA

Oinarri hauekin bat datorren edonork parte hartu ahal izango du, edozein dela ere bere nazionalitatea edo bizilekua.

2. BALDINTZATEKNIKOAK

Teknika eta gai librea.

Artista bakoitzak bi obra berri aurkeztu ahal izango ditu, jatorrizkoak, sinatu gabeak, eta hirugarren pertsona batek haren gainean izan ditzakeen eskubiderik libre.

Bi dimentsioko lana: gehienez ere 150 x 150 cm markorik gabe. Markorik gabe edo markoarekin aurkeztu ahal izango dira; baina markoak gehienez ere 3 cm-ko zabalera duen listoia izango du. Metakrilatoz babestuta egon daitezke, kristalarekin ez.

Hiru dimentsioko obra: gehienez ere 100 cm izan beharko ditu (zabalera, altuera eta sakoneran).

Obrak muntaketa berezia behar badu, artistak berak egingo du obra entregatzean.

Parte-hartzaile bakoitzaren arduraren eta erantzukizunaren izango da obraren garraioa obrak aurkeztean eta itzultzean. Amurrioko Udalak ez du bere gain hartuko obrak garraioan jasan dezakeen kalterik.

Ez dira onartuko baldintza egokietan ez dauden obrak, edo erabilitako materialaren hauskortasunagatik edo sendotasun ezagatik erraz narriatu daitezkeenak.

3. SARIAK

Parte-hartzaile guztiek sari orokor hauek jaso ditzakete:

- Lehen sari orokorra: 4.000 euro eta oroitzapenezko eskultura.
- bigarren sari orokorra: 1.500 euro eta oroitzapenezko eskultura.

Gainera, Amurrioko parte-hartzaileek sari hau jaso dezakete:

- Sari lokala: 1.000 euro eta oroitzapenezko eskultura.

Amurrioko artistatzat joko dira lehiaketarako obra entregatzean Amurrioko udalerrian errol-datuta daudenak.

Parte-hartzaile bakoitzak sari bat bakarrik jaso ahal izango du.

Sariak lege ezarritako atxikipean izango dituzte.

Lan sarituak Amurrioko Udalaren esku geratuko dira. Egileek obrak izenpetuko dituzte, eta Amurrioko Udalari lagako diote saritutako lanak ustiatzeko eskubidea. Dena den, eskubide hori bateragarria da egileek aurkeztutako obrak ustiatzeko duten eskubidearekin.

Sariak banatzeko ekitaldia: 2020ko irailaren 25ean, 20:00etan, "La Casona" udal erakusketa aretoan, erakusketa inauguratzean.

4. ERAKUSKETA

Hautatutako lanak "La Casona" udal erakusketa aretoan jarriko dira ikusgai, 2020ko irailaren 25etik urriaren 23ra. Lan horiez osatutako katalogo bat argitaratuko da. Parte-hartzaileek bai mena ematen diote Amurrioko Udalari beren lanak erreproduzitzeko, katalogoa argitaratu ahal izateko. Ezingo da erakusgai dagoen obrarik hartu erakusketa amaitu eta hurrengo egunera arte.

5. EPAIMAHAI

Epaimahaia arte, kultura edo kritikaren munduari lotutako adituek osatuko dute. Haien ardura izango da:

- Oinarri hauekin bat ez datozen obrak ez onartzea.
- Erakusketarako interesgarriak izan daitezkeen obrak hautatzea.
- Deialdi honetako sarien inguruan hausnartzea eta erabakitzea.

Sarietako edozein eman gabe gelditu daitezke. Epaimahaiaren erabakiak ezin dira aurkaratu. Epaimahaiaren osaera epaia jakinarazten denean emango da argitara.

6. OBRAK HARTZEA

"La Casona" erakusketa aretoan (Aldai 1, 01470 Amurrio – Araba), 2020ko irailaren 1tik 20ra arteko lanegunetan, bi egun horiek barne, 10:00etatik 14:00etara, larunbatetan izan ezik. Bidalitako obren bilgarria erraz irekitzeko eta ixteko modukoa izango da, obra ez narriatzeko. Garraioaren edo aseguruaren gastuak bai obra bidaltzean bai obra jasotzean, parte-hartzailearen kontura izango dira.

Obra bakoitzari honakoak erantsiko zaizkio:

- Oinarri hauekin batera doan izen-emate orria (edo fotokopia) behar bezala beteta eta sinatuta.
- Curriculum Vitae labur bat.

Amurrioko Udalak arreta osoa jarriko du obrak bere esku dauden bitartean zaintzeko, obrak itzultzeko azken egunera arte. Hala ere, eta ezinbestez, narriaduraren bat gertatuko balitz, ez da sortutako kalteen erantzule izango.

7. LANAK ITZULTZEA

2020ko azaroaren 2tik 27ra arteko lanegunetan, entregatu ziren ordutegi eta leku berean; emate frogagiria aurkeztu beharko da. Fakturatuta iritsi baziren, garraio agentzia bidez itzuliko dira, kostu ordaingabeekin. Epean jasotzen ez diren obrak Amurrioko Udalaren esku geratuko dira.

8. OINARRIAK INTERPRETATZEA

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak baldintzarik gabe onartzea, baita epaimahaiaren erabakia ere, eta legezko erreklamazio orori uko egitea. Oinarriak epaimahaiak interpretatuko ditu.

Lehiaketako epaimahaiak izango du eskumena eta aginpidea oinarri hauetan aurreikusi ez diren kasuak ebazteko.

IZENA EMATEKO ORRIA

Amurrioko Udalarentzako alea ZK.....

Izen-abizenak:

Helbidea:.....

Herria: P. K.....

Probintzia:.....

Telefonoa:

IFZ:.....

Posta elektronikoa:

Lanaren izenburua:.....

Teknika eta euskarria:.....

Neurriak:

Egin den eguna:.....

Lana itzultzea:.....

– Zuzenean jasotzea, aurrez frogagiria aurkeztuta

– Garraio agentzia berak berriz bidaltzea, goian adierazitako helbidera.

Garraio agentzia:.....

Amurrioko Udalari baimena ematen diot nire lana erreproduzitzeko, katalogoarekin eta Amurrioko Udaleko web orriko publizitatearekin lotutako xedeetarako.

Izenpea:

Entregaren frogagiria, obra jasotzeko aurkeztu beharrekoa ZK.....
Izen-abizenak:
IFZ:.....
Argibideetarako telefonoa:
Lanaren izenburua:
Teknika eta euskarria:
Neurriak:
Egin den eguna:
Izenpea:

41. OINARRIA. GOI-MAILAKO KIROL LEHIAKETETAN PARTE HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. artikulua. Funtsak

Amurrioko Udalaren eskumenen artean, kirola eta kirol jarduerak sustatzea dago, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) 17.1.19 artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen, TAOL) 25.2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kirola sustatzeko beste ekintza batzuen artean, Amurrioko Udalak beharrezkotzat jotzen du laguntza ekonomikoak ematea Amurrion erroldaturik dauden kirolari federatuei, Espainiako, Europako edo munduko lehiaketa edo txapelketa ofizialen edo Olinpiar Jokoen azken faseetan parte hartzeak sortutako gastuak ordaintzen laguntzeko.

2. artikulua. Xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea da Amurrioko Udalaren arauak ezartzea dirulaguntzak emateko Amurrion erroldaturik dauden eta 2018an Espainiako, Europako edo munduko lehiaketa edo txapelketa ofizialen edo Olinpiar Jokoen azken faseetan parte hartu duten kirolariei. Laguntzen helburua parte-hartze horrek sortutako gastuak finantzatzea da, esaterako, joan-etorriak, garraioa, ostatatzea edo dietak.

3. artikulua. Araubide juridikoa

1. Deialdi honetan ematen diren diru-laguntzek arau hauei jarraituko diete:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, diru-laguntzen orokorra.
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa, DBLO.
- 5/2018 Errege Lege Dekretua, uztailaren 27koa, Espainiako Zuzenbidea Europar Batasunaren datuen babesari buruzko araudira egokitzeko presazko neurriena.
- 887/2016 Errege Dekretua, uztailaren 21eko, dirulaguntzen lege orokorraren araudia onartzen duena.

Edo horiek ordezkatzan dituen beste edozein araudi.

2. Diru-laguntzak printzipio hauen arabera emango dira:

- Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.
- Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

3. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak ezagutzen eta onartzen dituela oinarri hauek eta azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Lege Orokorra, baita horrelako dirulaguntzei aplikatzekoak zaizkien arau guztiak ere, zuzenekoak nahiz subsidiarioak.

4. artikulua. Aurrekontu zuzkidura

Laguntza hauetarako aurrekontua, guztira, 2.000 euro da 2020an.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa, Amurrioko Udalak 2020an hartarako aurrekontu baliabide erabilgarriak edukitzeko baldintzaren pean dago.

Aurrekontu hori izateak ez du esan nahi Amurrioko Udalak hura osorik agortu behar duenik.

5.artikulua. Hartzaileak

1. Laguntza horien onuradun izan daitezke, 2019an Espainiako, Europako edo munduko lehiaketa edo txapelketa ofizialen edo Olinpiar Jokoen azken faseetan, nork bere kirolean, lehiatu diren Amurrioko kirolari federatuak.

Lehiaketa horiek kirol bakoitzeko lehiaketa-maila gorenekoak direla ulertu behar da. Beraz, kanpoan geratuko dira B mailako txapelketak, 2. mailako txapelketak eta holako lehiaketak.

2. Ez da onartuko hauen eskaerarik:

* 10. artikuluan adierazitako puntuazio zerrendako postua gutxienez lortu izana frogatzen ez den kirol probak.

* Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorra) IV. tituluaren adierazitako arau-hausteengatik edo Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa) jasotzen dituenengatik edo kirol arloko beste edozeinengatik ere (doping, etab.) zigortuak izan diren kirolariak.

* Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordaintzen egunean ez dauden kirolariak.

* Dirulaguntza eskaera egiten den egunaren aurreko hiru urteetan Amurrioko udalerrian erroldaturik egon direla egiaztatzen ez duten kirolariak.

6. artikulua. Beste dirulaguntza eta laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honen ondorioz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako jasotako beste laguntza batzuekin. Beste dirulaguntza bateragarri batzuk lortzearen ondorioz dirulaguntza honen xede diren jarduera eta gastuen zenbatekoa gaintzen bada, soberakina itzuli egin beharko zaio Amurrioko Udalari.

7. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Laguntza deialdi honetara bildu nahi duen kirolariak ondoko agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Dirulaguntza eskabidea, inprimaki normalizatuan.

b) Dagokion federazioaren ziurtagiria, dirulaguntzaren xedea den goi-mailako kirol lehiaketan parte hartzea egiaztatzen duena, ereduaren arabera.

c) Dirulaguntza eskaeraren helburu diren gastuen egiaztagiria, alegia, jatorrizko fakturak eta haiek ordaindu izanaren frogagiria.

d) Zinpeko aitortpena, jasotzen duena eskuratutako dirulaguntzarekin eta eska daitezkeen beste batzuekin ez dagoela inolako gainfinantzaketarik.

8. artikulua. Eskaeren aurkezpena

Eskaerak Amurrioko Udalaren Kirol Arloari zuzendu beharko zaizkio, eranskinean ematen den ereduaren arabera, eta udalaren beraren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (Juan de Urrutia plaza, z.g., PK: 01470, Amurrio), edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena) 16. artikuluan adierazitako beste edozein tokitan Garaiz eta behar bezala aurkezten diren eskaerak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

Beti ere, espresuki adierazi beharko da jakinarazpenetarako bizilekua.

Laguntza hauek eskuratzeko eskaera aurkezteak esan nahi du formalki eta berariaz onartzen dela oinarri hauetan ezarritakoa.

Kirolari berak txapelketa bat baino gehiagotan parte hartzeagatik eskaera bat baino gehiago aurkezten badu, berak puntu gehien lortu dituen eskaera baino ez zaio aintzat hartuko.

Interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzendu edo aginduzko agiriak erants ditzala, eta adieraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, iritziko dela bere eskaerari uko egiten diola, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laguntza eskaera bat izapidetzeko onartzeak ez du esan nahi hura emateko konpromisoa dagoenik.

9. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta handik 20 egun baliodunera bukatuko da.

10. artikulua. Eskaerak baloratzeko prozedura

Hirugarren artikuluan jaso diren eta diruz lagundu daitezkeen jarduera guztietarako laguntzen irizpideak haztatze eta laguntzok emateko, ondoko irizpidea hartuko da kontuan, laguntzaren xedea den goi-mailako kirolariaren kirol lorpenak baino kontuan hartzen ez dituen

LEHIAKETA MOTA	PUNTUAK
OLINPIAR JOKOAK / MUNDUKO TXAPELKETAK	
Sailkapena: 1.a - 3.a	10
Sailkapena: 4.a - 10.a	9
Partaidetza	8
EUROPAKO TXAPELKETAK	
Sailkapena: 1.a - 3.a	8
Sailkapena: 4.a - 10.a	7
Partaidetza	6
ESPAINIAKO TXAPELKETAK	
Sailkapena: 1.a - 3.a	6

Aurretik azaldutako puntuazioari puntu bat (metagarria) gehituko zaio:

- a) Emakume kirolaria izateagatik.
- b) Desgaitasun fisikoa edo psikikoa duen kirolaria izateagatik.

Lortutako postuaren atalean, lortutako posturik onena baino ez balioesteko irizpideari jarraituko zaio eskaera guztietan.

Laguntzak banatzeko puntuazio bidezko banaketa sistema bat aplikatuko da. Hartarako, 4. artikuluan zehaztutako zenbatekoa kirolari eskatzaile guztiek lortutako puntuen artean zatituko da, eta horrela puntuaren balioa aterako da. Puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira emaitza kalkulatzeko.

Ateratzen den zenbatekoa gorabehera, gehienez ere 500 euroko dirulaguntza emango zaio kirolari bakoitzeko deialdi bakoitzean.

2019ari buruz emandako datuen arabera aplikatuko dira laguntzak, eta ezingo dira inoiz ere argudio izan beste urte batzuetan eskatzeko.

Ez dira balioetsiko egiaztatzen ez diren datuak.

Laguntzen eskatzaileek aurkeztutako datuak egiazkoak direla egiaztatze eskubidea du Amurrioko Udalak. Amurrioko Udalak egiaztatzen badu aurkeztutako datuak faltsuak direla, kirolariok geroko deialdietatik kanpo geratuko dira eta, hala badagokio, itzuli egin beharko dute jasotako kopurua.

11. artikulua. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero aztertuko dira eta ebartziko da dirulaguntza eman ala ez.

Prozedura izapidetzea Amurrioko Udaleko Kirol Arloko arduradun teknikoaren ardura da.

Teknikari horrek ofizioz egin beharko ditu ebazpen proposamena egiteko oinarri izango diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezko deritzen ekintza guztiak.

Datuak egiaztatze jardunak bukatu eta gero, kirol teknikariak eskaerak ebaluatu egingo ditu, oinarri hauetan ezartzen diren irizpideei jarraituz, eta ebaluazio horren inguruan txostena emango du, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duena.

Udaleko organo eskudunak deialdiaz hartutako ebazpenean, baiezkoa izatekotan, puntu hauek adierazi beharko dira: laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko era eta hura ematen den baldintzak. Hala dagokionean, espresuki adierazi beharko ditu gainerako eskaeren ezespena eta horren arrazoia.

Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabete izango da.

12. artikulua. Laguntzak ordaintzea

Deialdia ebatzi eta gero ordainduko dira laguntzak, eskabidearekin batera aipatutako frogagiriak aurkeztu baitira.

13. artikulua. Publizitatea

Oinarri hauek ALHAOko iragarki baten bidez emango dira argitara, deialdia baino lehenago. Halaber, Amurrioko Udalaren web orrian (www.amurrio.org) ipiniko dira eta Amurrioko kirol entitateei jakinaraziko zaizkie.

14. artikulua. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaz zalantzarik sortzen bada, Amurrioko Udalaren Kirol Arloak ebartziko du.

15. artikulua. Datu pertsonalak babestea

Datu pertsonalak babesteko araudia betez, laguntzen onuradunei edo ordezkari buruzko datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean jasoko dira, laguntza hauen kudeaketarekin loturiko lanak eta eginkizunak betetzeko, aurretiaz horren berri emanda Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Erregistroari. Fitxategiak datuen erabateko segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun neurriak izango ditu. Datuak eskuratzeko, ezerezteko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideez baliatu ahal izango dira eskatzaileak Amurrioko Udalaren kirol bulegoan.

**42. OINARRIA. EGUBERRIETAKO MARGOLAN LEHIAKETA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute Amurrioko 14 urtetik beherako herritar guztiek, baldin eta oinarri hauetan ezarritakoa betetzen badute:

1. Derrigorrezko gaia: "Eguberriak"
2. Edozein teknika onartzen da: marrazkia, pintura, collage, e.a. Lan bat aurkeztuko da partaide bakoitzeko.
3. Lan bakoitzak bi egile izan ditzake, gehienez.
4. Gehieneko neurriak: 50x40 cm. Ez da onartuko koloretako fotokopiarik.
5. Lanak abenduaren 7tik 19ra arte entregatuko dira Kultura Etxean.

6. Lanaren atzealdean, egilearen datuak jarriko dira: lizen-izenak, adina, telefono zenbakia eta lanaren izenburua.

7. Aurkeztutako lanetatik hautatu batzuk "La Casona" erakusketa aretoan jarriko dira ikusgai, abenduaren 28tik urtarrilaren 7ra arteko lanegunetan.

8. Sariak abenduaren 28an banatuko dira "La Casona" udalaren erakusketa aretoan, 18:00etan.

9. Parte hartzaile guztiek opari bat jasoko dute.

10. Sariak:

A kategoria: 6 urtera arte (2014an jaiotako pertsonak barne):

1.a Diploma eta oparia.

2.a Diploma eta oparia.

3.a Diploma eta oparia.

B kategoria: 7 urtetik 10 urtera (2010 eta 2013 artean jaiotako pertsonak):

1.a 60 euro (pintura materialetan) eta diploma.

2.a 50 euro (pintura materialetan) eta diploma.

3.a 40 euro (pintura materialetan) eta diploma.

C kategoria: 11 urtetik 14 urtera (2006 eta 2009 artean jaiotako pertsonak):

1.a 60 euro (pintura materialetan) eta diploma.

2.a 50 euro (pintura materialetan) eta diploma.

3.a 40 euro (pintura materialetan) eta diploma.

10. Artearen munduarekin lotutako pertsonak osatuko dute epaimahaia.

11. Haren erabakia apelaezina da.

12. Saritutako lan guztiak "Juan Aranoa" Udal Arte Eskolaren esku geratuko dira, eta hark izango du lan horiek erreproduzitzeko eta erakusteko eskubidea.

13. Antolatzaileak arretaz zainduko ditu aurkeztutako lanak, baina ez da erantzule egingo hondatu edo galdu egiten badira.

14. Lanak urtarrilaren 11tik aurrera jaso ahal izango dira. Lanak ez badira 15 eguneko epean jasotzen, antolatzailearen jabetzakoak bihurtuko dira.

15. Irabazleei Udalaren web orriaren bitartez jakinaraziko zaie erabakia.

16. Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea.

43. OINARRIA. ARTZAIN EGUNEKO LEHIAKETAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Artzain Eguna azoka bat da, helburua duena oro har nekazaritza eta abeltzaintza sektorea eta bereziki artzaintza sektorea bultzatzea gure eskualdean eta lurraldean, ardi latxaren hazkuntza ezagutzera emanez eta artzainek urtean zehar egiten duten lana omenduz eta ezagutzuz, latxa arrazako abereak mantendu eta hobetu eta azken produktu bikainak eskaintzen baitituzte, hala nola esne gordinez egindako gazta eta arraza horretako esne arkumeak, sasoi honetan.

Azoka erakustoki bat da artzainek egiten duten lana ezagutzeko eta haien produktuak sustatzeko.

Hogeita sei urtez egin da Artzain Eguna Amurrion. Tradiziozko artzaintza galtzeko arriskutan dagoela jakinda, lan handia egin da abeltzaintza estentsiboak egunero jasaten dituen arazoak ezabatu edo murrizteko, hala nola ustiategien intentsifikazioa, belaunaldi ordeztearen galera, otsoarekin bizi beharra, produktuen prezio txikia, eta abar luze bat.

Azoka honen barruan, hiru lehiaketa egiten dira. Ondoren zehazten dira haien arauak:

LATXA ARRAZAKO ARDIEN PROBINTZIA ARTEKO XXVII. LEHIAKETA

Definizioa: Latxa arrazako abereen lehiaketa da, zeinean aurkeztutako loteetatik morfologiaz eta itxuraz hoberenak diren lauak saritzen baitira. Hiru atal desberdinetan har daiteke parte:

- Ahari lotea.
- 5 arkume emez eta arkume ar batez osatutako lotea.
- 5 ardiz osatutako lotea.

Baldintzak:

- Lehiaketa Amurrion egingo da, 2020ko irailaren 20an.
- Arabako Lurralde Historikoko edo Bizkaiko Orduña eta Orozko udalerrietako artzainek parte har dezakete lehiaketan.
- Artzain bakoitzak atal bakoitzeko lote bat eta ahari bat aurkeztu ahal izango du.
- Lehiaketaren egunean, animaliek goizeko 09:30ak baino lehen egon beharko dute azoka esparruan.
- Lehiaketan parte hartuko duten abereek legeak ezarritako osasun-baldintzak bete beharko dituzte.
- Lehiaketara aurkeztutako abereek behar bezala identifikatuta egon behar dute, eta Ziurtagiri Ofiziala izango dute, zeinak ziurtatu behar du bruzelosirik (*Brucella melitensis*) eta ahariaren epididimitis kutsakorrik (*Brucella ovis*) gabeko ustiategi batetik datozela.
- Abereak osasun eta higiene baldintza egokietan garraiatuko dira horretarako prestatutako ibilgailuetan, eta dagokien Jatorri eta Osasun Gidak izan beharko dituzte.
- Animaliek epaimahaiak adostutako probak egin beharko dituzte.
- Kalifikazioaren unean, jabeak ezin izango dira euren abereen ondoan egon.
- Artzainak ordaindu beharko ditu abereen garraiotik eratorritako gastuak. Dena den, antolatzaileek garraiorako diru-laguntza emango dute: 80 euro ardi loteko eta 25 euro ahariko.
- Saririk jasotzen ez duen artzain bakoitzak 20 euroko parte hartze dieta jasoko du, baina, horretarako, gutxienez bi ataletan parte hartu beharko du.
- Atal bakoitzeko 20 lote onartuko dira gehienez ere. Lehentasuna izango dute eskualdeko artzainek eta titular nagusi diren artzainak. Antolatzaileek sariak eta garaikurrak moldatzeko eskubidea dute, baita zenbait artzain edo ardi aurrez hautatzeko eskubidea ere. Epaimahaiak hala eskatzen badu, sariak hutsik gera daitezke edo sari bereziak eman daitezke.
- Izen-emateak Amurrioko Udaleko idazkaritzan egin behar dira, irailaren 1etik irailaren 8ko 13:00ak arte, parte hartzeko eskaera betez, non datu pertsonalak adierazi eta aurkeztuko diren abereak identifikatuko baitira.

Sariak ematea:

- Epaimahaikideen izendapena Abere elkarteak, Arabako Foru Aldundiak eta Amurrioko Udalak egingo dute.

• Lote guztiak ikusita, haiek baloratzeko irizpide objektiboak aplikatuko dituzte eta atal bakoitzeko lote irabazleen akta idatziko dute.

• Epaimahaia osatzen duten pertsona guztiek izenpetutako akta hori oinarri hartuz, irabazleak ezagutzera emango dira sariak emateko ekitaldian. Azoka egunean, 2020ko irailak 20, 14:00ak aldean egingo da ekitaldi hori.

SARIAK

Latxa arrazako ardiak.

1. atala: ahariak.

Lehenengo saria: 180 euro eta garaikurra.

Bigarren saria: 150 euro.

Hirugarren saria: 120 euro.

Laugarren saria: 90 euro.

2. atala: 5 arkume emez eta arkume ar batez osatutako lotea.

Lehenengo saria: 180 euro eta garaikurra.

Bigarren saria: 150 euro.

Hirugarren saria: 120 euro.

Laugarren saria: 90 euro.

3. atala: 5 ardiz osatutako lotea.

Lehenengo saria: 180 euro eta garaikurra.

Bigarren saria: 150 euro.

Hirugarren saria: 120 euro.

Laugarren saria: 90 euro.

Balorazio irizpide objektiboak: morfologia, eitea eta garbitasuna.

RUPERTO CASANOVAREN OROITZAPENEZKO XIV. GAZTA LEHIAKETA

Definizioa: Gazta lehiaketa bat da, zeinean parte-hartzaile bakoitzaren ustiategiko bertako ardi latxen esne gordinez egindako gaztak lehiatzen diren, eta zaporez, testuraz eta itxuraz hoberenak diren hiru gaztak saritzen diren.

Baldintzak:

- Lehiaketa Amurrion egingo da, datorren irailaren 20an.
- Lehiaketara aurkeztuko diren gaztek parte hartzen duen artzainaren ustiategian ekoiztako ardi latxaren esne gordinez eginda egon behar dute.
- Gaztak gutxienez 2 hilabetez egon behar izan dira ontzen.
- Bi artzainek edo gehiagok upel bera erabiltzen badute euren gaztak egiteko, gazta bakarra aurkeztuko dute kooperatibaren edo elkartearen izenean; hau da, upel bakoitzeko gazta bakarra.
- Ezinbestekoa da Arabako artzaina izatea eta ardi latxez bakarrik osaturiko artaldea izatea (gutxienez 100 abelburu).
- Lehiaketan parte hartzen duten artzainek gazta egiteko Osasun Erregistroko titularrak izan beharko dute eta, eskatuz gero, hala dela justifikatu beharko dute.
- Lehiaketara aurkeztuko diren gaztek nahitaez izan beharko dute kaseina plaka.
- Gaztaren baten jatorriari buruzko zalantzarik egonez gero, antolatzaileek eskubidea dute beharrezko neurriak hartu eta ikerketa bat egiteko.
- Izen-emateak Amurrioko Udaleko idazkaritzan edo Idiazabal jatorri-deituraren egoitzan egin behar dira, irailaren 1etik irailaren 8ko 13:00ak arte, parte hartzeko eskaera betez, non datu pertsonalak adieraziko baitira.

Sariak ematea:

- Bi epaimahaik egingo dute gazten balorazioa, eta epaimahaikideak Idiazabal jatorri-deiturak, Artzai Gazta elkarteak eta Amurrioko Udalak izendatuko dituzte.
- Epaimahai bakoitza Kontseilu Aurtzailearen batzorde ofizialeko teknikari batek eta beste bi kidek osatuko dute; azken horietako bakoitza Amurrioko Udalak eta Artzai Gazta elkarteak izendatuko dute.
- Bi epaimahaiek gazta guztiak ikusi eta dastatuko dituzte haien baloraziorako ezarritako irizpide objektiboek jarraituz, eta ondoren gazta irabazleen akta idatziko dute.
- Epaimahaia osatzen duten pertsona guztiek izenpetutako akta hori oinarri hartuz, irabazleak ezagutzera emango dira sariak emateko ekitaldian. Azoka egunean, 2020ko irailak 20, 14:00ak aldean egingo da ekitaldi hori.

SARIAK

Lehenengo saria: 300 euro eta garaikurra.

Bigarren saria: 250 euro.

Hirugarren saria: 200 euro.

Balorazio irizpide objektiboak: zaporea, testura, eitea.

VIII. GAZTA LEHIAKETA HERRIKOIA

Definizioa: Gazta lehiaketa bat da, zeinean parte-hartzaile bakoitzaren ustiatetik bertako ardi latxen esne gordinez egindako gaztak lehiatzen diren eta azokan bildutako herritarrek onena irizitako gazta saritzen den; herritar bakoitzak, gutxienez, aurkeztutako lau gazta dastatu behar ditu, eta bere gustukoenari botoa eman.

Baldintzak:

- Lehiaketa Amurrion egingo da, datorren irailaren 20an.
- Lehiaketan parte hartuko dute Juan Urrutia plazan postua daukaten gazta erakusle guztiek. Horretarako, saltzen dituzten gaztak beraien ustiatetik bertan ardi latxen esne gordinez eginak izan behar dira, eta Kaseina plaka eta Osasun Ministerioaren APPCC plaka (puntu kritikoen eta kontrol-puntuen analisia) eduki behar dituzte.
- Baldintza hauek bete behar dira produktuak erakusgai jarri eta saldu ahal izateko: ekoizle zuzenak direla frogatzea, ustiapen zenbakia aurkeztuz, Gizarte Segurantzaren erregimen egokian alta emanda egotea eta kuota guztien ordainketa egunean izatea (azken ordainagiria aurkeztu behar dute), osasun-erregistro ziurtagiria eta manipulatzailer txartela aurkezte, beharrezkoa izanez gero. Lehentasuna izango dute Goi Nerbioiko ekoizleek eta ekoizpen ekologikoen erregistroan alta emanda daudenek.
- Izen-emateak Amurrioko Udaleko idazkaritzan egin behar dira, irailaren 1etik irailaren 8ko 13:00ak arte, parte hartzeko eskaera betez, non datu pertsonalak adieraziko baitira.

Sariak ematea:

- Goizean zehar eta 14:00etara bitartean, gutxienez lau gazta dastatu dituzten parte hartzaileek gaztarik onena bozkatu ahal izango dute. Horretarako, dagokion txartela bete behar dute. Parte-hartzaileen artean gaztandegi garailearen gazta bat zozkatuko da.
- 14:00etan hautestontzia itxiko da, botoak kontatuko dira eta kontaktaren akta idatziko da.
- Kontakteta egiteko ardura duten antolakundeko kideek izenpetutako akta hori oinarri hartuz, irabazlea ezagutzera emango da sariak emateko ekitaldian. Azoka egunean, 2020ko irailak 20, 14:00ak aldean egingo da ekitaldi hori.

SARIA

Boto gehien jasotzen dituen gaztandegiarentzako saria: 100 euro.

44. OINARRIA. AMURRIOKO JAI PROGRAMAREN ATZEKO AZALEN LEHIAKETA

1. Lehiaketa honen xedea Amurrioko 2020ko jai programaren atzeko azala aukeratzea da. 2006tik aurrera, urte hori barne, jaioa den edonork ahal izango du parte hartu.
2. Lanak DIN A3 neurriko (29,7 cm. x 42,0 cm.) kartoi mehe batean aurkeztu behar dira, zutikako formatuan.
3. Atzeko azalak Amurrioren armarrria eduki behar du, baita hitz hauek ere: "Amurrioko Jaiak 2020. Andra Mari eta Done Errokeren ohorez", euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazko hitzak nabarmenduta.
4. 60 euroko sari bat emango da, eskolako materialetan, eta 30 euroko bi accesit, orobat eskolako materialetan. Adierazi diren hiru sari horietako bakoitza Amurrio Antzokian erabiltzeko zinebono batekin osatuko da.
5. Egile bakoitzak lan bakar bat aurkeztu ahal izango du, jatorrizkoa eta argitaragabea, zernahi teknikaz egina. Ezingo da alde zuzenetik aurkeztutako lanik aurkeztu.
6. Lanak 2020ko martxoaren 30etik eta apirilaren 10era bitartean aurkeztuko dira, Amurrioko Kultura Etxean (Landako kalea, 8. 01470).
7. Atzeko azala identifikaziorik gabe aurkeztu behar da, eta atzealdean idatzitako goiburu batekin. Atzeko azalarekin batera, gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da, bere kanpoaldean atzeko azalaren goiburu bera izango duena. Barruan, egilearen izena eta abizenak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa agertu beharko dira.
8. Epaimahaia jaietako kartel lehiaketakoa bera izango da.
9. Lehiaketa ebatzi zenetik hogeita hamar egun balioudun igarota aukeratu ez diren lanak jaso ez badira, esan nahiko du uko egiten zaiela eta Amurrioko Udalak haiekin nahi duena egiteko eskumena izango du eta ez du inongo erreklamaziorik edo kalte-ordainik ordaindu beharrik onartuko.
10. Sariak 2020ko maiatzaren 15ean banatuko dira, 19:00etan, Bañueta udal kiroldegiko atarian. Egun horretan bertan inauguratuko da hautatutako lanen erakusketa. Lan horiek ekainaren 5era arte egongo dira ikusgai.
11. Saritutako atzeko azala udalaren jabetza bihurtuko da, eta berari komeni zaion garaian eta moduan egingo dira haren kopiak.
12. Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 18. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, udal web orrian aurkeztuko da sarituen zerrenda.
13. Epaimahaiaren epaia Amurrioko Udalaren web orrian jakinaraziko da, bai eta ere idatziz sarituei.

**45. OINARRIA. "AMURRIO HIRIBILDUA" GABON ABESTIEN
ERRONDA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

1. Erronda Amurrioren egingo da, 2020ko abenduaren 23an, asteazkenean, 18:00etatik aurrera.
2. Parte hartzen duten abestaldeak gutxienez 8 lagunek osatuak izan behar dira. Ahotsez eta instrumentuz osatuak izan daitezke.
3. Parte hartzeko kategoriak:
A kategoria: Eratutako abestaldeak, bertokoak nahiz kanpokoak, musika koralean era finkoan dihardutenak.
B kategoria: Bat-batean osatutako taldeak, era finkoan ez dihardutenak musika koralean.

Abestalde bakoitzak kategoria bietako batean bakarrik har dezake parte.

4. Hiru tokitan nahitaez kantatu behar dute: 1. Kultura Etxearen aurrean, 2. Guk-en pasea-
lekua, 3. Larrinaga kaleko oinezkoen zona. Abestalde guztiek gutxienez bi gabon kanta abestu
behar dituzte nahitaez kantatu beharreko hiru toki horietan.

5. Nahitaezko gabon kanta Kultura Etxearen aurrean abestuko dira. A kategorian: "Orra Mari
Domingi"; eta B kategorian: "Mendi aldetik datoz"; biak bertsio librean. Talde guztiek gutxienez
aukerako beste gabon kanta bat abestuko dute. Abestaldeak, nahi dituzten gabon kanta guztiak
kanta ditzakete beste edozein tokitan, oinarri hauetan nahitaez ezarritakoez landa.

6. Hona hemen ezarritako sariak:

A kategoria	B kategoria
1.a 400 euro	1.a 300 euro
2.a 250 euro	2.a 200 euro
3.a 150 euro	3.a 100 euro

7. Oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituen abestalde bakoitzak 75 euroko dieta
hartuko du. Sariaren bat hartzen duten abestaldeek ez dute izango dieta jasotzeko eskubiderik.

8. Gabon abestien errondarako dohainik eman daiteke izena, Amurrioko Kultura Etxean,
azaroaren 18tik abenduaren 13ra bitartean. Tel.: 945 891 450. Izena emateko epea bukatuta,
kantatzeko tokiak eta orduak jakinaraziko zaizkio abestalde bakoitzari.

Argitalpen hau otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz
egiten da.

Aurrekontu orokorraren behin betiko onespeneraren aurka administrazioarekiko auzi
errekurtsoa jarri ahal izango da jurisdikzio horren arauak xedatutako eran eta epeetan, bat
etorritz aipatutako Foru Arauak 18. artikuluan xedatutakoarekin.

Amurrion, 2020ko ekainaren 12an

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA